

# tüpi-ttapa

1995ko urtarrilak 5 • 149. zenbakia

Elkarizketa

**Martín ASTIBIA**  
leitzarrarekin

Erreportaia

**PLAN ESTRATEGIKOA**  
**NAFARROAREN**  
**IPARRALDERAKO**



BAZTANGO BILTZAR NAGUSIA:  
**BOTO ONTZIAK HUTSIK**





# ttipi-ttapa

Baztan,  
Bortziriak,  
Leitzaldea,  
Malerreka  
eta  
Saraldeko

PROFESIONAL  
KOMERTZIO  
LANTEGI eta  
ZERBITZUAK

# Gida Komertziala

orain, **ttipi-ttapa** argitaratua

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

## Nola anuntziatu

Modu bat baino gehiago dago, bakoitza bere tarifarekin

### Letra beltzean.

Horrela, letra arruntean daudenetatik nabarmenduz.  
Adibidez... (Osiña eta Okane)

### HARATEGIAK

#### ARANTZA

OSIÑA  
Osiña Auzoa, 8 .....634188  
MACICIOR LARRALDE, F. Karrika Nagusia .....634114

#### BERA

BORDA - Patxi - Bidasoa, 16 .....630082/631406  
PRIETO IRAZOQUI, J. A. - Errotazar .....630088  
OKANE  
Kanttonberri, 4 .....630018  
PAGOLA - Altzateko Plaza, 28 .....630054  
PANDO ROJO, C. - Bidasoa, 71 .....630452

### Moduloetan sartuz.

Neurri eta prezio desberdinetakoak daude.  
Adibidez...

### ELEKTRIZISTAK

TXIMISTINDAR ANDUEZA (Modulo bat)

***Tximistindar***  
***J.M. Andueza***

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK  
Askain karrika, 12 - 4. Ezk.  
Faxa eta Tfnoa: 948 - 63 08 54 **BERA**

### DESINFEKZIOAK

BERA DESINFEKZIOAK (Orrialde erdia)



**DESINFEKZIOAK**  
**DESINSEKTIZAZIOAK**  
**DESARRATOITZEAK**

© 63 01 55 BERA

Zure ingurua  
klase guztiko inektuz  
(xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...)  
eta arratoi-xagutxo garbitu nahi  
baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.

Eta orain, **Termita eta Poliillen**  
kontrako tratamenduak ere  
egiten ditugu.



ESTABLEZIMENDU eta ZERBITZU PLAGIZIDEN ERREGISTRO OFIZIALA NA-144-T Zenbakiduna

Eskatu informazioa konpromisorik gabe • © 63 11 88



DATUAK.....

❖ Martin Astibia, 'Nekane' janaridendako' arduraduna da.

❖ Leitzako beste 45 komertzioen modura, 'Nekane' janaridendak «Merkataritza munduan euskara normalizatzeke plangintzan» parte hartzen du.

❖ Plangintza berbera burutzen ari da Goizuetan ere, eta hemen 15ek sinatu dute hitzarmena.

❖ Plangintzak hiru fase ditu; lehenengo biak burutuak dira dagoneko eta hirugarren honetan, orain artekoari segida emanen zaio.

❖ Udaletik eta Euskara Zerbitzutik positibotzat baloratu dute lortzen ari den emaitza.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN

Martin ASTIBIA:

# «Dendan euskaraz aritzeak ez dit klienterik kentzen»

## ZEIN DA ZURE USTEZ EUSKARAREN EGOERA ETA PRESENTZIA LEITZAKO KOMERTZIOETAN?

Nire ustez komertziantze gehien gehienek badakite euskaraz eta ibili ere, ibiltzen dute. Izan ere, normalki Leitzan herri euskalduna baita, nahiz eta kalea ez hain euskalduna izan. Leitzarren gehiengoak jakin badaki euskaraz bainan behar-bada ez du hainbeste erabiltzen, batez ere gazteen artean eta... Hortaz, niri behintzat, euskaraz egiteak ez dit klienterik kentzen.


## NORBAITEK BAZUEN KEZKA HORI EDO?

Bai, bakarren batek behar-bada badu kezka hori.

## PLANGINTZA HAU GAUZATZEKO, UDA-LAK LAGUNTZA ESKEINI DIZUE, EZTA?

Bai, halaxe da. Errotuloak euskaratzeko 30.000 pta. arteko dirulaguntza emanen omen digute, bai dendaren kanpoko aldekoak edo barnekoak euskaratzeko, alegia. Nik adibidez, banuen hemen haragien zerrendekin letrero bat erdaraz eta orain euskaraz ari didate jartzen.

► «Errotuloak euskaratzeko 30.000 pta. arteko dirulaguntza emanen omen digute, bai dendaren kanpoko aldekoak edo barnekoak euskaratzeko, alegia.»



Eta beste dendetan ere, gauza bera ari dira egiten eta gainera norbait ez bada kapaz berea euskaratzeko udal-txean edo Euskara Zerbitzuan lagunduko ziotela esan dute. Gero, badakit baita norbait apuntatua dagoela ikastaroren batetara ere, propio komertzioetan

lan egiten duen jendearentzat prestatua; talonak nola betetzen diren erakusteko, baita fakturak ere... Nik esan nien ikastaro honetan ez nintzela apuntatuko, lehen ibili bait naiz gau-eskolan.

## ORDUAN, LAGUNTZA GUZTI HAUEKIN, PROBLEMAREN BAT IKUSTEN DIOZU PLANGINTZA HAU AURRERA ERAMATEKO?

Ez, nik ez diot ikusten problemarik. Nork edo nork badietuela eus-

kaldunak ez diren klienteak... nik adibidez badiut extremeñoak direnak, bainan beren umeak euskaraz dabilta eta gurasoak, beti ere, ez dira euskararen kontrarioak. Jakina, beraiek ez dakite euskaraz eta orduan beraiei gaztele-raz egiten diet, bainan beraien postura ez da euskararen kontrakoa. Izandu zuten garai bat kristauetz hitzegiteko eskatzen zutena, bainan orain ez, hemen beti ere.



# PLAN ESTRATEGIKOA NAFARROAREN IPARRALDERAKO



**Badira kasik bi urte Cederna-Garalur elkarteak Nafarroako Mendialdearen etorkizun ekonomikoa xede bezala harturik, 'hausnarketa prozesu' bati hasiera eman ziola. Denbora honetan, zonaldeko zenbait sektore sozial, ekonomiko eta instituzionalekin batera, elkarrekin horretako tekniko eta arduradunek aipatutako Plan Estrategikoa osatu dute. Eta prozesu honetan sartzen dira abenduaren 16 eta 17an, 'Nafarroako Mendialdearen Garapenerako Alternatibak' izenarekin egin diren Ihardunaldiak.**

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN

**N**afarroako Mendialdearen Garapenerako Alternatibak'. Izenburu hauze zeraman Bertzen abenduaren 16-17an egindako Ihardunaldiak. Helburua, orain arte Plan Estrategikoa egiteko Batzorde Sektorial desberdinetan garatu diren proposamenak 'aberrastea edo zehaztea' zuten, eta horrekin batera, 1995erako Aktuazio Plana izan den dena erabakitzeko aprobeztatu

nahi dira bertan lortu diren konklusioak. Dena den, laister bi urte beteko dira Cederna Garalur elkarteak Biltzarrek Plan Estrategikoa prestatzen hastea erabaki zuenetik. Baina, zer eta zertarako da Plan Estrategikoa?

**PLAN ESTRATEGIKOAREN ABIAPUNTUAK**  
Plan Estrategikoa Nafarroako

Mendialdean eragiten duten agente ekonomiko eta erakunde desberdinen jokamolde-estrategiarentzat gidaliburua izan nahi duen dokumentu bat da, beronen bultzatzaileek diotenez. Horretarako, hiru abiaburu eza-

«Ihardunaldietako konklusioetan ez zen bildu agertu genituen kezka bakar bat ere»



**Ramon APEZETXEA**  
San Martin Nekazal Eskolako Zuzendaria

■ Nola baloratzen duzu Hezkuntza eta Formazioak gaur egun Mendialdean duen norabidea?

□ Ikastetxeen zeregina gazteak bizitzarako hezi eta formatzea da, profesionalki eta pertsona bezala. Guzi hori, herri kultura ezagutuz, kontutuan hartuz eta baloratuz egin beharra dago, bakarrik horrela aberastuko baitira gure herriak. Toki guzitan ezin da irakaskuntza berbera eman eta gutiago oraindik herrien nortasuna baztertu. Oraindik orain 'listoen eta ez hain listoen' bereizketa trixtea egiten da; Batxilertza eta Lanbide Eskolak. Arrakasta, ordea, bakoitzak bere trebetasunak eta afizioak garatzean dago. Ez dut uste asmatu denik Lanbide Eskolak desagertarazi eta REMari bidea eman, eta ezta ere, aukeratu

diren modulo eta espezialidadeekin. 1995ean aldaketa batzuk sartuko dira. Baina nahi dugun kalitateak beste hainbat gauza eskatzen ditu; Gobernutik ezarri nahi diren espezialidadeak behar ditugunak dira?, lantegietan praktikatzetik izanen da?, euskara...?

■ Egin berri diren Ihardunaldiek, zer aportatzen dute zure ustez?

□ Aipatutakoaz luze aritu ginen eta bertakoekin kontatu gabe gobernutik deus ez inposatzea eskatu genuen. Harrigarriena, halere, agertu genituen kezka bakar bat ere konklusiotan ez bildu izana da. Hutsegite larria iduritzen zait, horrela ez baita Plan onik egiten ahal.



rri omen dizkiote hasieratik; lehenik, "azken urteotan maila ekonomikoan eta giza-mailan gutiagora etorria den lurraldea berrindartzeko, bai sektoreka eta bai orokorrean, jokabide desberdinak gidatu eta bere baitan bildu nahi ditu Plan honek". Bigarrenik, "zonako agente sozial eta ekonomiko guztiak inplikatu" nahi ditu horretan, eta azkenik, "Plana eztabaidarako elementu bat izatea" nahi du Cederna-Garalurrek, "debatea lagundu eta lehenetasunak markatuko dituen".

Horiek horrela, Cederna-Garalurren bitartez eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbararen zuzendaritzapean, bi mailatako Batzordeak antolatu ziren bitartean. Alde batetik Batzorde Sektorialak deitu izan direnak (Nekazaritza, Merkataritza eta Turismoa, Industria, Formakuntza eta Lurralde antolaketa) eta bertze aldetik, Eskualdeko Batzordeak (Planean sartzen diren eskualde bakoitzean bana).

### 1995ERAKO AKTUAZIO PLANA

Bertizko Ihardunaldietan, Cedernako arduradunen hitzetan, Plan Estrategikoaren konklusioak zehaztu egin dira, eta "hemendik aitzinera lan egiteko tenorea etorriko da, konklusioak analizatu, eta hoietatik behar ditugunak hartu 1995ean aktuazio zehatzak burutzeko". Horretarako, ahalik eta giza-errekurtso gehienarekin konstatzea espero dute.

Hurrengo urteotarako helburuak ere agertu ditu Cederna-Garalurrek. Laudira funtsean: garapen prozesuan parte hartze lokala haunditzea, bertze mailetako administrazioekin elkarrizketa bultzatzea, asoziazionismoa eta integrazio soziala bultzatzea, eta azkenik, sektore produktibo guztien garapen armonikoa bultzatzea. ■

## «Funtsezkoa den kalitatezko diagnostia eta ardatz filosofiko garbia ez dira inon ageri»

### ■ Nola baloratzen duzu Batzorde Sektorialetan burutu den prozesua?

□ Berez, positibotzat jo beharko litzateke Plan Estrategikoa egitea, baina akats haundiak ikusten dizkiogu. Gure ustez zonaldeko jendeak eraman beharko luke dinamika, eta errealtatean, ez da horrela gertatzen. Teorian prozesua irekia da, baina praktikan zonalde-tik kanpokoak dira dinamizakariak haundiena sortu eta monopolizatzen dutenak. Xelebrea da ikustea zenbait goi-funtzionariok egin duen erreziklajea, orain arte kriterio ekonomizistekin neuritzen zuten dena eta orain bapatean, 'mundu ruralaren' aurkikuntza egin dute. Dena den, Garapen Plan guztian lehenengo lana bertako iniziatiba sortaraztea da, eta bertan ez badago iniziatibarik arazoa ez da moldatzen iniziatiba kanpotik eraman. Honekin batera funtsezkoa da kalitatezko diagnostia egitea eta ardatz filosofiko garbia edukitzea, eta



**Mikel PETIRENA**

EHNE-Nafarroako lehendakaria

horixe da orain arte inon ageri ez dena. Beti gauza orokorretaz hitzegiten da eta hoietan ere ez dago akordiorik. Loturarik gabeko gauzak planteatzen dira. Badirudi, zerbait egitea egiten ari dela guzti hau, eta batzutan, gauzak horrela egitea, deus ez egitea baino kaltegarriagoa izaten ahal da. Orain arte ikusi dugunez, nekazaritzan eta turismoan behintzat, arras ikus-

puntu filosofiko desberdinak daude mahaigainean.

### ■ Zentzu honetan, berriki Bertizen egin diren Ihardunaldiak zer aporteratzen dute zure ustez?

□ Ihardunaldi hauei ez nien inolako ardatzik ikusi eta badirudi ez dela bilatu ere egin nahi. Bertizen bildutakoan artean gehienak Iruñean bizi den jendea ikusi nuen, okasiorako Iruñeatik joanak. EHNEtik arras kritikoki ikusten ditugu Ihardunaldi hoien emaitza.

### ■ 1995rako Aktuazio Planak zein oinarritzko puntu bildu beharko litzuke EHNEren ikuspegitik?

□ Helburu garbia markatu, gehiengoari serbitu eta integratzea. Kontua ez da 10 baserri errentable bihurtzea eta lana gutti batzuren serbitzurako egitea, horretarako ez da Plan Estrategikorik behar. Gainera, arras inportantea da zonaldearen izakera erabat errespetatzea eta bide horretan, Garapen Plan Sektorialak zehaztea.



EUROPATIK DATOZEN DIRULAGUNTZAK BANATZERAKOAN ERE, PLAN ESTRATEGIKOA KONTUTAN HARTUKO DA.



EGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.950 ALE

GITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

endaria: Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

zena, Joxemanuel Irigoien.

**ministrazioa:** Amaia Goia.

**edakzio taldea:** Pello Ape-

kea, Juainas Paul, Kristina

an, Bittori Telletxea.

**riemaileak:** Joseba Azpiroz,

eban Arozena, Juana Mari

zar, Ainhoa Mutuberria, Iban

si, Txema Aldabe, Pello

egia, Txema Urroz, Patxi

andorena, Daniel Martirena,

el Maia, Josune Etxebeste,

olo Mendiburu, Joseba

abide, Alizia Olaizola, Margari

enike, Koro Irazoki, Mixel

endiain, Jacqueline, Elixabet

ria, Garbiñe Maiz, Oskar

perena, Alberto Sansiñena,

o Apezetxea, Aitor Arozena,

tina Boan. **Kolaboratzaileak:**

NE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel

zunartea, Joxe Javier

eberria, Arantxa Zabala...

**rimategia:** Gertu (Oñati).

**i-ttapa** ez du bere gain hart-

derrigorrez, aldizkarian adie-

tako erranen eta eritzien eran-

kizunik.

**kunde Laguntzaileak:** Bera,

za, Goizueta, Areso, Baztan,

lazubi, Zugarramurdi eta

ako udalak, Bortzirietako

skara Mankomunitatea,

errekako Zerbitzu Mankomu-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako  
obernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEKO GAIA

### Momentu larriak Baztango Biltzar Nagusiarentzat?

#### Gauzak ez badira aldatzen, sistema hau desagertuko da



Jon FRANTZESENA  
Elizondoko alkatea

Nere idurikoz, gauzak ez baldin badira al-

datzen, urte aunitzik gabe hau desagertu egingen da. Herrietako alkate eta kargodunei lan aunitz egitea tokatzen zaigu, eta lanaz gain, telefonoa dela eta gasolina dela, geure sakeletik dirua ateratzea ere tokatzen zaigu hainbertzetan. Ni jubilatua nagoelakoz, baina bertzenaz, hau ez da posible. Hemen Elizondon, goiti eta beheiti aunitz ibili behar da, eta hain errekurtsio gutirekin ezin da. Segitzekotan, bertze manera batean antolatu beharko da. Autonomia eta konpetentzia gehixeago beharko genuke eta diru gehixeago ere bai gauzak egin ahal izateko. Gauregunedozein gauza egiteko ere, diru eske joan behar dugu aiuntamentura eta bertzenaz etxetxe. Gurekin bakar bakarrik lana egiteko kontatzen da, deus bertzetarako ez. Bertzalde, jendeak ere paso egiten du aisa aski, eta batzarretara ere ez da kasik agertzen.

#### Ordenantza berriak egiteko batzorde bat ari da lanean



Patxi OIARTZABAL  
Baztango alkatea

Herrietako alkateen arazoa ez da konpe-

tentziarik ez dutela, dituztenak behar bezala betetzeko nahiko errekurtsorik ez dutela baizik. Jakina baita, Biltzar Nagusiaren funtzionamenduari dagokionez eta baita udal funtzionamenduari dagokionez ere, herrietako alkateen konpetentzia da lehentasunak markatzea eta udala hoietan partizipe egitea. Dena den, egiazko problema errekurtsio faltarena da.

Hortaz, denborarekin behar sozialak aldatzen ari diren bezala, Ordenantzak ere aldatu eta egokitu egin beharko dira, eta Biltzar Nagusiak herrietako alkateei kapazitate ekonomiko gehiago ematea erabaki beharko du. Nola? Ordenantza berriak egiteko hortxe dugu batzorde bat izendatua, eta horretxek aurkeztu beharko ditu proposamenak Biltzar Nagusian. Espero dezagun luze gabe hortik zerbait ateratzea.

#### Zirt edo zart egiteko tenorea ailegatua zaio Biltzar Nagusiari



Lander SANTAMARIA  
Kazetaria

Baztangoiza, Elizondo, Herbera eta Basa-

buruako junteroen izendapenarekin eta *batzarretan* aukeratuak izan diren hamabortz herriko-alkateen kargu hartzearekin batera, Baztango Biltzar Nagusia zati batean berriztatze prozesuari akabera eman zaio. Zehatzagoak izateko, Biltzar Nagusia osatzen duten 32 kideetatik 19tan berritu baita. Hauteskunde munizipaletan Balleko alkatea eta 12 kontzejalak aukeratuko direnean, orduan akituko da, zehazki, Biltzar Nagusiaren berriztatze prozesu osoa. Tramitean dago Ordenantzen gaurkotzea eta berritzea, Baztango 'konstituzioa' den Ordenantzarena. Premiazkoa da hori. Biltzar berriaren esku dago Baztango autogobernua eta subiranotasunaren mugak erabakitzeko aukera historikoa eta espero dezagun ausardia politikoaz eta etorkizunaren ikuspegi progresista batekin egitea. Erabaki garbien premia larrian gaude.



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



*Alkaiagan  
argia paratu  
dute*

**Marisol TABERNA**

Doinua: Posaiako herriitik...

*Lesakako herria  
ederki apaindua  
baina gure auzoan  
ez argi ta ez ura  
zergak ordaindu eta  
zerbitzurik ezta  
eskerrik olentzero  
bai oroitu dela.*

*Santiago eguna  
Alkaiagan seinale  
enteratu ez denak  
egin beza galde  
bertakoak bagara  
beti umorezale  
bidea argitua dago  
etorri zaitezte.*

**Eskutitza...**

Sorpresak atseginak direlakoan, hona hemen urte-robezala eskutitza. 'Eskutitza' hain erreza ematen duen gauza eta egiteko hainbeste denbora ematen duena... Baina honetarako ere erloju bat daramagu barru barruan eta abendua iristen denean tik tak tik tak tik triiiimm... Boligrafoa hartu eta gure behatzak mugitzen hasten dira: *Zorionak eta urte berri on 1995.*

(Zerbait gehiago idatzi beharko dut ezta??) Ea elkar ikusten garen... Ea aurten ere izandako ametsak behingoz burutzen diren... Nork daki! Hau ere: Hain errega ematen duen gauza bat eta... Baina honetarako ere erloju bat badago, haundiagoa oraindik, eta tik tak tik tak tak... dabil dagoeneko. Eskutitza hau amets hoiengatik preso dauden oroi-garri izan dadila. Eta gu zer?? Aaaa, hor zaudete?? Zuek ez al zarete izanen ba, amets hoiengatik kalean jotake ari zareten hoiak?? Amets gehiago dituzuela?? Oso ongi

LURRA  
IRUÑA



**Goizuetako  
Jaiotza taldea**

Talde hau gutxienez orain dela 32 urte kaleratu zen guraso batzuen lanari esker, zerengarai hartan nahiko lan zuten bestela ere, baina egun hauek zirela eta, zerbait egin behar zela jende behartsuekin pentsatuz.

Honela hasi ginen partitzen, biltzen genuen diru hori: batzuetan Ortuellara, bestetan Iruñako eskola bate-ra, eta azken urte hauetan Goizuetako ospitalera, bi azkenekoak ezik, ospitalekoa kendu zen, ez zirelako konponketa lanetan hasten, baina hor dago dirua herriko kutxan, noizbait norbait konponketa lanetan hasten bada. Baina zuri al-kateak zerbait esan badi-zu guk baino gehiago dakizu. Baita ere herriko jende behartuei laguntzeko erabili da dirua, Kiko Hernandezeri kotxe elektriko bat erosteko bezala.

Azken bi urtetan, lehenbiziko apaizak egin behar zuen kapilarako eta bigarrenean, urte asko ginituela guretzako ezer egin gabe eta afari bat egin genuen eta gainerako dirua elizako teilatua konpon-tzeko eman. Barkazioa es-

katu behar badugu, hori izan da gure errua, eta edo-zeinek kontuak nahi badi-tu hor daude kutxako es-traktoak.

Beste aldetik gonbidatzen zaituztegu gure bileretara etortzea, Ikusiko duzue denok 'demokrazin' aukera-tzen dugula zer egin di-ruarekin, baina erdaraz esaten den moduan: "*Praileak uste dik denak bere antzekoak direla*".

Bestalde, gustatuko litzai-guke jakitea nor zaren, ze-ren zuk badakizu nor ga-ren gu, eta zenbat dirukin sentitzen zara 'timatua'. Ez dugu inor horrela sentitzea nahi eta gustora bueltatu-ko dizugu diru hori. Ulertzen ez duguna da nola egon-du zaren urte guzian hain timatua eta azken ordura arte ez duzu ezer esan. Edo bazter guztiak nahastea da zure asmoa?

Aurten, aurreko urtean bai-no 30.000 pta. gehiago bil-du dugu, 118.000 pta. de-nera. Datu hauekin ikusten da, zu bezala timatuak sen-titu direnak ez direla hain-beste izan. Gaizki ulerturik ez izateko, aurtengoa eli-zako teilaturako izango da.

GOIZUETAKO JAIOTZA TALDEA  
(LAU LOTSAGABE BAINO GEHIAGO)  
ENA: 15.982.290

**ETXANDI  
TXOKO  
erretegia**

Bazkari, afari eta  
gosariak

**ITUREN**  
Tfnoa: 45 04 91



**KATTU**

**OSTATUA  
JATETXEA**

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



**zalo  
ostatu**

**LESAKA**



PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egin 94-XII-27

«Bizitza municipala degradatzen ari da gero eta gehiago, izan ere, obrak adjudikatzerakoan eta dirulaguntzak kobratzerakoan ibiltzen den jokamolde ilegal honek, bide ematen baitu udal-aktibitatearen beste mailetan ere jokabide irregularrak izatera».

Andoni ESPARZA

Leitzako idazkaria  
Diario de Navarra 94-XII-8

«Jubilatuak lan haundia egiten ahal du, eta egiten ari da. Gure elkarteko ordezkariak lan haundia egiten dute, eta Felipe Ganboa ordezkariak gabe deus ez da».

Felipe GANBOA

Arkupeak Jubilatutako Elkarteko  
Lehendakaria  
Euskaldunon Egunkaria  
Nafarkaria 94-XII-16

♦ Tailutzeko zer da errexago, harria edo zura?

❖ Zura.

♦ Maite dituzu eguberrietako bestak?

❖ Ez sobera, egia erranda.

♦ Horoskopoa zein zeinutakoa zara?

❖ Tauro.

♦ Loteria erosten duzu?

❖ Ez, ez dut ohiturarik.

♦ Tailutzeko, zein da zurarik hoberena?

❖ Zumarra eta ezkia.

♦ Bizioaren bat?

❖ Besta egitea.

♦ Zer nahiago, etxe berri bat edo zaharra ongi antolatua?

❖ Etxe zahar bat ongi antolatuz gero aunitzez ederragoa da.

♦ Zer eskatu diozu Olentzeroari?

❖ Osasuna.

♦ Tailutzeko beharrezko tresnak?

❖ Gubia eta formoia zurarendako; zizela eta punteroa harriarendako.

♦ Zer duzu nahiago, turroia edo pastela?

❖ Pastelak eta txokolatea dira nere goxokorik gustokoenak.

♦ Zein izan da zure azken lana?

❖ Etxe baten erretratua tailutzea.



Ebaristo MENTABERRI

Zugarramurdiko zur eta harri lantzailea

## MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40 • BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98

BERA



## OKAVE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA



Bera

# Lera zakur ibilaldia Ruandaren alde

Urtarrilaren 4ean, goizez pasatuko dira  
Beratik Irun aldera

KRISTINA BOAN

Abenduaren 11n ateri ziren borts gipuzkoar hiru lera garraiatuz. Hego Euskal Herrian barrena mila kilometro egingen dituzte helburu bakarrekin: Ruandaren alde dirua biltzea.

Hainbat eta hainbat herritan ibili ondotik, atzo pasatu ziren gure herritik Irun aldera hartuz. Hiru lera eta husky arrazako hogeitaborts bat zakur ikusi ahal izan ziren, "Guziak Ruandaren alde" lemapean. Erran bezala, diru eskean ibilki dira eta eliza izanena da dirulaguntza biltzeaz arduratuko dena pegatinak edo bertzelakoak salduz, baina bada laguntzeko bertz modurik ere: Euskadiko Kutzako 053.0.00276-9 zenbakian laguntza ekonomikoa sartzea.

Gure herrira Lesakatik etorri ziren, han arratsa eman ondotik.



Txistulari taldeak Berako abesbatzarekin batera emanaldi bikaina eskeini zuen abenduaren 18an

Argazkia: Kristina

## 'Altzateko Jaun' antzeslana Kultur etxean, hilaren 6 eta 7an

Lamixine Berako Antzerki Tailerrak 'Altzateko Jaun' izeneko antzeslana eskeini du ortziral eta larunbat honetan (6 eta 7), arratseko 8etatik aitzinera Berako Kultur Etxean. Lana joan den urteko ekainan aurkeztu bazuten ere, oraingoan zenbait

moldaketa egin dizkiote eta taldeko partaideen artean ere aldatetarik egon dira.

Bertzalde, antzerki taldeak bere lana burutzen segitu ahal izateko laguntza-txartelak atera ditu. Laguntza emateko helbidea: Alzate 24, 1. - 31780 BERA.

## Errege kabalgata

Gaur ailegatuko da Berarat. Hori dela eta hiru ikastetxeetako guraso elkarteek antolatutako jaiotza egingen da Alzateko plazan. Erregeak goxokiak partitu bitartean, San Jose, Maria eta jaioberrira agurtzera joan dira. Gero, Herriko Etxeko balkoitik umeak agurtuko dituzte.

titi-flash

❖ **Ricardo Baroja** eskolako 8. mailako ikasleek, ikasbidaiaren alde zozketatutako saskiaren zenbaki sariduna, 2.164a izan zen. Etxalarako Arantxa Danborienak erosi zuen boletoa.

❖ **San Jose** zaharretxeko berri-tze lanak hasi berriak direnean, inguruko bizilagunek kexa bat agertu dute, eraikitzen hasi direnean bertako etxeen zimentuak mugitu direlako.

❖ **Gure Txokoak** antolatutako ipuin lehiaketa hilaren 31rarte zabalik egonena da. Lanak Gure Txokoa elkartera bidali behar dira. Bertze urtetan bezala bidali izanen dira, 14 urte arte eta helduak.

❖ **Dantza ikastaroa** Urtarrilak 14, 21 eta 28an Gure Txokoa dantza taldeak haurrak dantza ikastaroan matrikulatzeko epea irekiko du. Larunbatetan apuntatu ahal izanen dira, 12etatik 1etara Eztegarra frontoian.

**BOAN**  
**TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Alzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

**LAGUNTZA - TXARTELA**

LAMIXINE BAT Berako Antzerki taldeak bere lana burutu ahal dezan, 1.000 pezetako dirulaguntza eskeini nahi diot.

IZEN ABIZENAK:.....

HELBIDEA: .....

HERRIA: ..... POSTA KODEA: ..... TELEFONOA: .....

KONTU ZENBAKIA: ..... BANKETXEA: .....

*Urte berri On*

**HELBIDEA: Alzate 24, 1. - 31780 BERA**





# Bideekin zenbait gorabehera izan dira Herriko Etxean

Pagolletarako pistaz eta Bereautik Berrizaun artean trenabidea moldatzeaz aritu dira

AITOR AROZENA

Pagolletara egindako pista legalizatzea erabaki du udalak, PNVren aldeko botoarekin, HBren abs- tentzioa eta EAren kontrako botoarekin.

EAKo Del Riok, bi metro zabalera baino guttiagoko bideetan motorraduten ibilgai- luak pasatzea debeka- tua dagoela erran zuen eta hauei Elutsa ingu- ruraino joatea debe- katzea eskatu zuen. Alkatearen erranetan berriz, bidea larrialdi kasuetan erabiltzeko baliagarria izaten ahal da eta "legeak ez dira zehatz-mehatz iraku- rri behar, herritarren mesederako ahalik eta hobekien interpretatu- baizik". EAK, pistaren egileak nor diren iker- tu nahi ez izatea lepo- ratu zion alkateari eta "zona hori zaborte- gia bihurtzeko arriskua" aurreikusi zuen.

Bertzalde, trenabi- dea Bereautik Igantzi- ko Benta bitartean



Ikusmin haundia sortu zuen olentzero lehiaketak. Goizetik ere abudo mugitu ziren gazte kuadrilak baserrietara joateko

Arg.: AITOR

moldatzeko asmoa azaldu du udalak. Igantziko Bentako zu- bia moldatzen den bi- tartean bide alternati- bo bezala erabiliko omen da, baina Nafa- rroako Gobernuak ez du erantzun zehatzik eman oraindik. Be- raiek egiten ez badu- te, udalak egingen omen du, Igantziko udala eta Nafarroako Gobernuaren lagun- tzarekin, beti ere.

## Eguberri bezperan, olentzeroz eta jaiotzez bete zen herria

Aspaldiko urteeta- ko ohitura betez, olen- tzero eta jaiotzez bete ziren Lesakako karri- kak eta baserri auzo- ak Eguberri bezperan.

Goizean goiz ena- tuta, baserrietan bar- na ibili ziren gazte ko- adrilak olentzeroa era- manez. Egurdiko le- hiaketan, hamabortz bat olentzero talde eta

bertze hainbertze jai- o- tza aurkeztu ziren.

Arratsalde berriz, herriko etxeetan eska- tuz ibili ziren taldeak. Goizeko taldeekin ba- tera, ikastolako eta am- nistiaren aldeko olen- tzeroa ere eskean ibi- li ziren. Lehiaketako irabazle nagusiek tx- arangaren laguntza izan zuten.

ttipi-flash



## Estitxu Arozenak

'Xalto' saria, 25 urtez behitiko bertsolari nafarrei zuzendutako txapelketa irabazi du Goizuetan.

## Udal idazkari

lanpostua betetze- ko lehiaketa deial- dia luzatu du He- rriko Etxeak. Ana Sacristan, orain ar- te lanpostua bete- tzen zuena, bertze herri batera joan da, udalbatzaren esker ona jaso ondotik.

## Kinto bazkaria

1966, 67 eta 68an jaiotako kintoek be- raien 5garren baz- karia izanen dute Kattun hilaren 5an.

## Fabrikaren ixuria

Inoxente egunean, Biurgarai erreka xuri-xuri agertu zen Tomasenekoborda inguruan.

**EROSLE**

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264

**BEREAU**

Herriko Etxea • Hotel

Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



**EKAITZA kafetegia**

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13

948 - 62 75 47

**LESAKA**

Lagunekin  
elkartzeko  
toki egokia

**KOXXILA**  
**OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA



**Etzalar**

# Intsumisoen eskaria onartu du udalak

Larraburuako mus txapelketa Domekeneko Anttoniok eta Jauregiberriko Kandidok irabazi dute

PELLO ETA ALBERTO

Soldaduskarik ez, ezta hori ez egiteagatik kartzelarik ere. Gehiago oraindik, ejerzitoak berak desgertzea, eta horiei dagozkien legeak ez betetzea. Hori eskatzen duen intsumisoen eskariarekin bat egin du Udalak, bertze hainbat tokitan bezala.

## Larraburuko mus txapelketa bukatu da

Domekeneko Anttonio eta Jauregiberriko Kandido ditugu joan berri den udazken horretan Larraburu Elkarteak antolatutako mus txapelketa irabazi dutenak. Bigarrenak, Aldalurko Bordako Juan eta



Larraburu elkarteak Xabierreko San Frantzisko egunean omendutako 80 urte bete dituztenak Arg.: PELLO

Armitzeko Santiago.

## Ur zikinen bidea trabatua

Ur zikinak eramaten dituen hoditeri edo

tuberia trabatuta gelditu da, eta ez nolana gainera; bertako langileek ez baitute libratu ahal izan. Bere ziki prestatutako jen-

deek etorri behar izan dute kanpotik. Ixuritikia du hoditeriak, itxura duenez eta horrek sortzen du arazoa.

*ttipi-flash*

## 1994an jaiotakoak

Antsoneko Borda, Aldalurko lehen solairua, Izardi eta Olazarrek ikusi dute 199an bizilagun jaio berria. Lau haur, denetara.

## Arrainentzako bidea

Antsolokuetako presa gaindi ahal izateko eskailera eginen da arrainentzat, ingurugiroari buruzko legeak agindu bezala.

## Olentzero zutik

Gabon eguneko Olentzero gaztetua eta zutik ikusi dugu oraingoan. Oso ororik berrietik egin dute, eta jendetza ederrak segitu zion karrikan barrera.

## Zaharrena joan zaigu

Elizaldeko Bordako Anttonio 'Baztan' neguaren bezperan joan zaigu. 96 urterekin.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**ZALAIN**  
JATETXEA  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
Zalain Auzoa  
63 09 67  
**BERA**  
Boda eta banketeak ematen dira

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**koxkonta**  
Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia  
Deitu erreserbak egiteko  
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia  
635290  
**ETXALAR**



**Igantzi**

# Eliza atareko zuhaitzak ez botatzea erabaki du udalak

Aseguro bat hartuko da izaten ahal diren arriskutarako

## OSKAR TXOPERENA

Orain dela biz-pahiru aste elizan egin-dako bozketan bertze-rik atera bazen ere, mendizaina eta arki-tektoaren txostenak ikusi ondotik, eliza atareko zuhaitzak ez botatzea erabaki du udalak ahobatez. Zuhaitzak bere onenean ez daudela kontutan hartuta ere, kenduz ge-ro kalte estetikoa haundiagoa izanen li-tzatekela uste dute zi-negotziek. Izaten ahal diren arriskutarako se-guru bat hartzea era-baki zuten bidebatez.

## Olentzero

Zenbait aldaketa-rekin, baina aurren ere bete da Olentzeroaren tradizioa. Aldaketa diogu, goizeko hau-rren taldeen eskeak



Eskolako ttikienak ere olentzeroarekin ibili nahi izan zuten. Hementxe dituzue herria inguratu baino lehen.

ohitura den bezala egin baziren ere, ilu-nabarreko olentzero lehiaketa ez egitea era-baki zutelako antola-tzaileek. Lehiaketaren orde z aurtengo bortz olentzeroek herri gu-zia inguratu zuten biz-

pahiru lekutan geldi-tu eta elkarrekin abes-tuz. Azkenik plazan, talde bakoitzak bere kanta eskeini eta bere saria hartu zuen egin-dako lanarengatik. Antolatzaileen ustez, taldeen arteko lehia-

kidetasuna kendu egin zaio aldaketa honekin.

## Botika martxan

Abenduaren 22az geroztik martxan du-gu Igantziko lehenda-biziko botika edo far-

mazia. Beharrezko inspekzioa pasatu on-dotik, apezak erran-dako errezua eta on-doko hameketakoare-kin inauguratu zen. Orain arte medikua-ren etxean zegoena Arantzakoaren mene-an zegoen eta egune-an bi orduz bertzerik ez zen irekitzen. Ireki berri honek, aldiz, goiz eta arratsaldeko ordu-tegi arrunta beteko du. Veronica Fernandez Mitxeltorena da boti-kari berria eta etxe gu-zietara bidalitako dio-enez "herritarrak aha-lik eta hobekien aten-ditzen" saiaturko da.

❖ Pello Itxaingobor-dakoari tokatu zaio abesbatzak aurren zozketatutako egu-berri zare ederra. Zorionak.

## ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 • LESAKA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**SASKI OSTATUA**  
LESAKA

## zimeldi ALTZARIGILEA

▲ Kolorea gustatzen zaizu?  
Sar ezazu kolore pixka bat zure etxean. Altzari tintatuak egiten ditut.

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO BENTA



**Arantza**

# Bortz antzerki saio eskeini zituzten eskolako neska-mutikoek

Sarreran borondateari esker irabazitako dirua, 7. eta 8. mailakoen ikas-bidaiarako erabiliko da

GARBINE ETA ELIXABET

Abenduaren 17an burutu ziren eskolako haurren antzerki ekitaldiak. Denetara, bortz antzerki saio eskeini zuten eta jende franko bildu zen. Eskolako bi zarien zozketak ere bertan egin ziren. Zenbaki sarituak, 3.525 eta 2.765 izan ziren. Sarreran, borondatearekin irabazitako diruarekin 7. eta 8. mailakoek ikasbidaiara joateko laguntza izanen dute.

## Sei olentzero aterri ziren

Abenduaren 24an sei olentzero talde herriko karriketan barna kantari ibili ziren etxetxe. Biharamonean berri, olentzeroari



Eskolako neska-mutikoen antzeslanek ikusmina sortu zuten

Arg.: ELIXABET

agurra emateko haurrentzako jokuak antolatu ziren. Gero, talde bakoitzak olentzero alboan zuela, eguberrietako abestiak kantatu zituen. Lehia-

ketako irabazleak, 7. eta 8. mailakoak izan ziren eta bigarrenak eskolaurrekoak. Azkenean, ohitura denez, olentzero guztiak erre egin ziren.

Orain erregeen esperoan gelditu dira herriko neska-mutikoak. Bergane eta plaza aldean esperatuko dituzte eta elizan jasoko dituzte opariak.

*ttipi-flash*

## Garbiketa zerbitzua

Rosarito Larretxea izanen da bertze urtebetz eskola eta mediku kontsultak garbiketaren arduraduna. Azken urteotan, Rosarito bera izan da lan hauek egin dituen.

## Zerri puxken analisia

Lehen Herriko Etxera eramaten ziren zerri puxkak analizatzeko. Orain aldiz, zerria hil eta Lesakako Osasun zentrorera eraman beharko dira puxkak, astelehenetik ortzegunera, goizeko 9etatik 12etara.


**XATURETXEA**



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**SAROB**

**okindegia**



**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**ttipi-ttapa**

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



**ANSONEA**  
**JATETXEA**

*Kontsultatu menu bereziak*

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

**GRUPO**



**ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



**Sunbilla**

# Gabon eta Eguberri egunetako ohiturak mantendu dira aurten ere

Ttikienak olentzeroarekin ateri ziren eta biharamonean gazte koadrilak etxez-etxe eskean ikusi genituen

IXABEL ETA JOSUNE

Gabon eta Eguberri egunak arras giro onean pasatu ditugu aurten. Alde batetik, Gabon egunean herriko haurrek eta gazte txoek, 80-85 bat lagun bi olentzerorekin kantatu zuten herrian zehar. Bertze aldetik, Eguberri eguneko ohitura segituz, gazteak eskean ibili ziren, lehendabiziko herrian eta afalondotik baserri bazerri. Aurten gazte bizkorki ibili da, 29 lagun. Erran behar da herrian, mutikoe-kin batera 15 neska ibili zirela kantari. Ez zuten nolanahiko giroa jarri.

Eguberri biharamonean ere bazkaldu ondotik besta honekin



Gaztetxo koadrila polita bildu zen olentzeroarekin kantari

segitzen dute gazteek.

## Mus txapelketa

Urtarrilaren 7an, bapateko mus txapelketa hasiko da Ulibeltzak elkarteak. Txapelketa gaueko 10etan jokatu da eta bi astetik behin jokatuko da.

## Ihauteriak urtarrilaren 27tik 29ra

Urtarrilaren 27, 28 eta 29an ospatuko diren ihauteriak prestatzen ari da jendea. Hau probetuz, emakumeak ere afari bat egitekotan dira. Afari honetan, adin guztietako emakumeak par-



Eguberri egunean, ongi afaldu ondotik baserrietara joaten dira gazteak

te hartzen ahal du eta elkarteak egingen da. Parte hartu nahi duenak bere izena eman beharko du elkarteak edo Iosune, Ainhoa, Rakel edo Ixabeleri erran urtarrilaren 25a baino lehen.

## Uholdeak

Aurten ere ia ia uholdeak izan ditugu herrian. Abenduaren 22an, loteria ez ziztaizun tokatu baina susto ederra bai. Zenbat etxetan ura agertu, beharrik agerketa bertzerik ez zela izan.



**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

**MariCruz**  
**LENTZERIA**

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**



## TELLETXEA MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

*Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.*

*1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan.*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



**Doneztebe**

# Pisu tutelatuak egiteko lizentzia onetsi du udalak

Bertzalde, Aseguru Sozialeko bulegoak egiteko epea luzatu da

TXEMA ETA KARMELO

Babeseko pisuak edo pisu tutelatuak egiteko lizentzia ematea onetsi du udalak, aldekola boto eta kontrako birekin. Alkateak, M<sup>a</sup> Jesus Perurenak, Tomas Ezkurak eta Honorio Tabernak alde bozkatu zuten eta Jose Ignacio Zabala eta Jose Antonio Artazkozek kontra.

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateari udalaren lur baten jabetza uztea dela eta, udalak bere garaian egin eta paratu zituen baldintzen onarpena agiri baten bidez aurkeztea eskatzen zuten bi zinegotzi hauek. Honetaz gain, pisu hauen bideragarritasun ekonomikoa aurkeztea eskatu zuten, eraikitzearena, baita geroko funtzionamendua ere.

## Ur kontadoreen

... egoera kaxkarra dela eta, zenbait kasutan, bertze arrazoiengatik (udalaren



Zubietako Benantzio Baleztenak irabazi zuen Erreka elkarteak zozketatutako zare bikaina. Errekako Tomas Utergak eman zion saria, 13.912 zenbakiaren truke. On egin!

baimenik gabeko urhartzeak), kontadore guziak begiratu eta kontrolatuko ditu udalak. Honela onartu zen, ur eta argiez ardurtzen den batzordeak egindako lanaren ondorioz.

## Alkatea Eskola Kontseiluan

Plenoak Miguel San Miguel alkatea aukeratu du eskola kon-

tsailuko udal ordezkari bezala. Berak hiru boto lortu zituen eta Jose Ignacio Zabala zinegotziak bi.

## Aseguru Sozialeko bulegoak

CAISS edo Aseguru Sozialeko bulegoak egiteko epea atzeratu egin da. Doneztebe bezala estatu mailan hamazazpi leku-

tan ere egoera berdina da. Dena den, aurtengo eginen direla uste da.

## Nafarroako Itzuliaren...

Eta baten bukatu eta erlojupeko igotzera antolatzeke prest dago udala, Erreka elkartearekin batera. Honela jakinarazi dio behinipein Nafarroako federazioari.

*ttipi-flash*

❖ **Taberna eta zapata denda**  
berri bana idekitzeko baimena eman du udalak. Taberna Osasun Etxearen parean egonen litzateke eta zapata denda berriz, Merkataritza karrikaren.

❖ **San Migeleko bidea** moldatzea, Azpiroz eta Saralegi eraikuntza enpresak egin du berriki. Zola botatzaren kostoa 2.822.606 pezetakoa izan da.

❖ **Udal kideen soldatak**  
Alkateak 343.125 pezeta, ordezkariak 123.750 eta gainetarako zinegotziak 61.875 pezeta kobratuko dute iazko lantegiengatik.

❖ **Kaxerna tabernan**  
Guardiazibilak sartu eta laneko arropaz jantzirik zeudelako edaria ez serbitzea erabaki zuten bertako nagusiek. Honegatik koartelera eraman zituzten tabernariak. Protesta eta elkartzun gisara, ostalariek barra itxi zuten asetburu batez.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

Egunaren 24 ORDUTAN  
zure esku gaituzu.  
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA  
Tfnoa: 63 74 04

**BEINTZAko  
OSTATUA**

Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN

## ttipi-ttapa

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Zubieta

# Urtea akitu ondotik, Errege egunari begira

Ohitura zaharrari eutsiz, Eguberri bezperan haurrak etxez etxe ibili ziren kantari

AINHOA MUTUBERRIA

Eguberriak oraindik ez dira amaitu, erregeei ongietorria ematea gelditzen zaigu. Lehen, opariak egun honetarako izaten ziren, baina duela urte batzuk olentzero, gizon potolo eta maitagarri hori, gero eta gehiago entzuten hasi gara. Jende askok, abenduaren 24an eginen dituen erregaloak. Bestelako ohitura zaharrak ere mantentzen



Javier Muguruzak euskal musikari buruz egin duen hiztegia erakutsi zuen.

Arg.: Artxiboa

ditugu. Eguberri bezperan haurrak, inoiz baino gutxiago bazi-

ren ere, etxez etxe abesten ibili ziren. Datorren urterako gaz-

tetxo gehiago animatzea espero da, lotsak alde batera utzita.

## Hitzaldia

Abenduaren 16an, Javier Muguruzak herrira etorri zen hitzaldia ematera eta musika euskaldunari buruz egin zuen hiztegia erakutsi zuen.

## Sutea

Abenduaren 29an sutea izan zen Xapako Txikia Fermintxo eta Arantxaren etxean. Itxura batean, beheko suak txinpartaren bat bota, aulkia erre eta hortik solairura zabaldu zen sua.

# FUTBOLIN TXAPELKETA

## Doneztebeko AMEZTIA Ostatuan

- Ortziraleroko, gaueko 10etatik aitzinera.
- Izen ematea: 500 pezeta bikoteko.
- Txapelketa Urtarrilaren 13an hasiko da

*Bildutako dirua lehendabiziko hiru bikoteen artean banatuko da.*

Izen ematea:

**AMEZTIA**

© 450028 • DONEZTEBE





# ETXETIK



# PLAZARA

Bortziriak, Goizueta, Leitzaldea eta Malerreka  
Euskaltegiak 10. Zenbakia IKA-ren Argitalpena

1994ko abenduan



- Nor da? Nor da?

- Ni naiz, urte berri.

- Zer dakarzu berri?







Solstizioak lurra eguzkitik hurbilen dagoenean gertatzen dira: negukoa abenduak 24 eta udakoa ekainak 24. Ikusten denez gaur egun jai nagusiak dira Euskal Herrian. Kristautasunak Jesusen jaiotza neguko solstizioaren egun berean paratu zuen.

Azkuek eta Barandiaranek diotenez EGUBERRI hitzak "eguzki berri" erran nahi du, momentu horretatik aitzinera eguzkia gero eta denbora luzeagoan egoten delako gure gainean.

Lehen euskal gizakiak eguzkia jainkotzat hartu zuen. Eguzkia zen bizitzaren bultzatzailea, berak zuen indarra, ontasuna eta bai sutea ere. Horregatik gau honetan enborra konsagratzen zaio. "Gaboneko enborra", "Gaboneko zuzia", "Gaboneko mokorra" izenez ezagutzen dira. "Olentzero egun" horretarako arratsaldean berotzeko erabiliko den suan normalean baino handiago den egur puska paratuko du etxekoandreak. Joandako garaietan, erdi erreta zegoen enborraren ondarrak atarian jartzen ziren, aziendak hura zanpatu eta gaitzik harrapa ez zezan.

Olentzero lanbidez ikazkin da, Oiartzun eta Bidasoako herri guztietan sinesten dute. Berastegin otearekin karga- karga eginda datorrela eta igitaia dakarrela diote. Betiere suarekin du erlazioa. Lesakako 1928. urteko txosten batek dio: "prozesioan daramaten panpina da, bedeinkazioak partituz doa eta herriko plazan erretzen dute".

Olentzero hitza nondik ote dator? Oles arotik zenbaitek dioen moduan? Izan ere, zenbait koplatan ageri denez, "oles" edo eskean ibiltzera datoz, eskean aritzeko sasoia baitzen.





## ORAIN ZUK AURKI ITZAZU

### GUEREKIN JOSTETAN

A) Lotu itzazu hitzak bere definizioarekin:

1.- SOLSTIZIOAK

A.- Diru edo janari eskean ibiltzea Eguberrietan, Santa Agedan eta Ihauterietan-eta ohitura da.

2.- EGUBERRI

B.- Eguzkia lurretik hurbilen dagoen urteko bi garaiak.

3.- OLES EGITEA

C.- Eguzkia berritzen den garaia. Hau da: hor-tik aitzinera eguzkiak denbora gehiago goxa-tuko gaituela.

### NOLA DEITZEN ZAIO?

A.- .....

1.- Gabonetan sua egiteko paratzen den enborrari?

### ZER DA?

B.- IKAZKINA

2.-.....  
.....

### GAIZKI IDATZIAK ZUZENTZEN

Azpian dauden hitzak zenbait akats dituzte eta zure lana horiek zuzentzea izanen da, horretarako testuak lagunduko dizu.

1.- CRISTAUTASUNA

4.- IDUZKIA

2.- EGONENDELA

5.- URBILEN

3.- ORREGATIK

6.- ORTAKO



---

## ZER DIO ?

---



**Goizuetako  
Bittoriana**

Kaixo Bittoriana!

**- Oroitzen al zara zure ume edo gazte denboretako gauzez?**

- Oroituko ez naiz ba, bai horixe!

**-Kontatuko al zeniguke nola igarotzen ziren garai hartan Eguberriak?**

- Bai, bai, oso ongi pasatzen genituen guk Eguberriak, hamabi bat lagun bildu eta familia giroan eta umore ederrean egoten ginen.

**- Olentzero gauean esate baterako otordu berexiren bat egiten al zenuten?**

- Bai, mingaina saltsan jateko ohitura genuen eta gure amak gainera oso ongi prestatzen zuen, sukaldari ona baitzen. Mingaina egosi, albardatu eta saltsa berdean paratzen zuen. Postretako, berriz, sagar erreak. Hamarrak aldeko afaldu, sutondoan kontu batzuk esan eta hamabietan gauerdiko mezatara joaten ginen.

**-Eguberri eguna ere familia artean igaroko zenuten ezta?**

- Bai, egun horiek horretarako izaten zirenez berriz ere lagun mordoxka biltzen ginen mahai inguruan eta bazkari gozo-gozoa izaten genuen egun hartan ere, zerriaren azpizainak jaten baikenituen. Azpizainak labean erreta, ondoan patata purea zutela, eta postretarako, berriz, arroza esnea. Turroia ere, Eguberri seinalea bezala edo, pixkat izaten zen.

**-Elkarri opariak edo egiten al zenizkioten?**

-Ez, orduan Eguberrian ez zen oparirik egiten, hori geroztikako kontua da, eta gainera Ameriketatik heldu den ohitura da hori. Guk erregetan izaten genituen erregaloak, zapata paratu eta beti zer edo zer izaten zen

**-Eskerrik asko Bittoriana, horrelaxeko memoria eta umorearekin urte askoz jarrai dezazula opa dizugu.**

**ARIKETA:** erantzun itzazu hurrengo galderak konparaketak erabiliz

1.- Orain bezain ugari afaltzen al zuten Bittorianaren garaian?

2.- Guk adina gastatzen ote zuten gure aiton-amonek?

3.- Guk Bittorianaren garaian baino gehiago gastatzen al dugu?

4.-Errege eguna Olentzero baino gehiago ospatzen al zen?

5.- Guk bezainbeste luxu al zuten garai hartakoek?





## EGIN ZUREA

### DEKLINABIDEA I

Euskaraz hitzek, egiten zaizkien galderen arabera, bukaera diferenteak hartzen dituzte. Bukaera eta galdera hauei deklinabidea deitzen zaie.

HITZA  
mutil

NOR etorri da?  
mutilA

NOREKIN joan zen?  
mutilAREKIN

NORI erran diozu?  
mutilARI

Hala ere ez da horren sinplea eta maiz ez ditugu behar bezala erabiltzen.

**Adibidez:** LagunAK ekarri dute. (gaizki)

LagunEK ekarri dute. (ongi)

**Hementxe daukazu lehenengo hiru kasuak:**

|             |                                                              |
|-------------|--------------------------------------------------------------|
| <b>NOR</b>  | LagunA etorri da (sg.)<br>LagunAK etorri dira (pl.)          |
| <b>ZER</b>  | Guk etxeA egin dugu (sg.)<br>Guk etxeAK egin ditugu (pl.)    |
| <b>NORK</b> | LagunAK etxea egin du (sg.)<br>LagunEK etxea egin dute (pl.) |
| <b>ZERK</b> | EtxeAK anitz balio du (sg.)<br>EtxeEK anitz balio dute (pl.) |

\* **singularra (sg.)= bat**  
**plurala (pl.) = bat baino gehiago**

|             |                                                                       |
|-------------|-----------------------------------------------------------------------|
| <b>NORI</b> | LagunARI ogia eman diot (sg.)<br>LagunEI ogia eman diet (pl.)         |
| <b>ZERI</b> | EtxeARI teilatua erori zaio (sg.)<br>EtxeEI teilatua erori zaie (pl.) |

### ARIKETAK:

#### 1. Aldatu pluralera ondoko esaldi hauek?

- A.- Zakurra joan da
- B.- Apezak egin du
- C.- Etxeak pareta sendoak ditu
- D.- Alkateari erran diot
- E.- Emakumeari gona altxatu zaio

- A.- Zakurrak joan dira.....
- B.-.....
- C.-.....
- D.-.....
- E.-.....


#### 2. Zuzendu gaizki dagoena:

- A.- Zuk etorri zara
- B.- Nor egin du hori?
- C.- Txoriak kaka egin dute
- D.- Mutikoeri oihiu egin diet
- E.- Oiloakeri lumak erori zaizkie

- A.- Zu etorri zara.....
- B.-.....
- C.-.....
- D.-.....
- E.-.....



## KUTXA ZAHARRA



### USARIO ZAHARRA

Eguberri garai honetan, badira zenbait ohitura, bertso, kontaera, kanta, e.a.

Konta iezaiguzu zuk dakizun horrelako zerbait. Hona hemen bat:

*" Orain dela urte gutxi arte urte zahar gauean, auzoko gizonetatik bat, baserriz baserri koplatan hasten zen baserrietako etxejojaun guztiak bilduz. Goizaldera arte sekulako parrandan ibiltzen ziren. Hori bai, emaztea etxean "*

### HIZTEGIA

Ba al dakizkizu lurreko suaren inguruan izaten ziren edo diren tresnen izenak? Guk "LARATZA" besterik ez dugu ezagutzen eta gehiago ikasi nahi genituzke.

**LARATZA,**





# ERANTZUN ORRIALDEA

## ORAIN AURKI ITZAZU

GUREKIN JOSTETAN:

1.- \_\_\_\_\_

2.- \_\_\_\_\_

3.- \_\_\_\_\_

NOLA DEITZEN ZAIO:

A.- \_\_\_\_\_

ZER DA?

2.- \_\_\_\_\_

GAIZKI IDATZIAK ZUZENTZEN:

1.- \_\_\_\_\_

4.- \_\_\_\_\_

2.- \_\_\_\_\_

5.- \_\_\_\_\_

3.- \_\_\_\_\_

6.- \_\_\_\_\_

## ZER DIO ?

1.- \_\_\_\_\_

2.- \_\_\_\_\_

3.- \_\_\_\_\_

4.- \_\_\_\_\_

5.- \_\_\_\_\_

## EGIN ZUREA

1.- A.-..Zakurrak joan dira.....

B.-.....

C.-.....

D.-.....

E.-.....

2.- A.-..Zu etorri zara.....

B.-.....

C.-.....

D.-.....

E.-.....

## KUTXA ZAHARRA

USARIO ZAHARRA.....

.....

.....

.....

.....

HIZTEGIA.....

.....



## TTIPI-TTAParen LEIHOA

### ZU AL ZARA IRAKURLERIK FINENA?

Zer da Plan Estrategikoa?.....

Ramón Apezetxearen ustez zein da ikastetxeen zeregina?.....

M. Petrirenaren ustez, zein izan beharko luke 1995erako Aktuazio Planaren helburu nagusia?.....



Baserriko jaki lotea eta **MARTIKO**k emandako produktu lotearen irabazlea:

### ALE HONETAKO SARIA ERAMAN NAHI BADUZU:

- 1.- Ariketak egin. (Ez duzu dena jakin beharrik, saiatzeta da kontua)
- 2.- Erantzunak erantzun orrialde honetara pasatu.
- 3.- Bakarrik erantzun orrialde hau, korreoz bidali edo zuk zeuk euskaltegian utzi. Hona hemen helbideak:
  - Leitzako Euskaltegia. Udaletxea ( Leitzaldekoek )
  - Bortzirietako Euskaltegia. Arretxea 22, Lesaka ( Bortzirietakoek )
  - Malerrekako Euskaltegia. Doneztebe ( Malerrekakoek )
  - Goizuetako Euskaltegia. Udaletxea ( Goizueta eta Aranokoek )
  - Udaletxeko bulegoa. Balleko Etxea. Elizondo (Batzangoek)
- 4.- Guk zuzendu eta itzuliko dizugu.
- 5.- Bidaltzen duzuenen artean sari baten zozketa egingen da.
- 6.- Zozketan parte hartuko dute **hilbeltzaren 20a baino lehen** bidaltzen dutenek.

**HILABETE HONETAKO SARIA**  
**"UREPEL KIROLAK"** Leitzako dendan  
15.000pztako diru-txartela

### SARIAREN ZOZKETARAKO DATUAK

Izena.....

Abizenak.....

Adina.....

Helbidea .....Herria.....

Telefonoa.....



Aldizkari honek  
Nafarroako Gobernuaren  
dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek  
Europako Komunitatearen Batzordearen  
dirulaguntza jaso du





## Kultur egunak ortzegunetik larunbatera burutuko dira

Ibintza kultur elkarteak antolatutako ekitaldien artean, Bittor Aiape eta Eragaitz taldeak larunbatean eskeiniko duten jaialdia

IBAN ISASI

Azken urte hauetan Ibintza kultur elkarteak antolatuta Eguberri garaian burutzen diren ekitaldiak antolatu ditu aurten ere. Urtarrilaren 5, 6 eta 7ko egitaraua honako hau izanen da.

### Urtarrilak 5 Ortzeguna

Goizean pastel-gintza ikastaroa haurrentzat. Setan berendua eta opari banaketa. 6etan joaldun tikiak eta gaueko 10etan, errege bezperako afaria Juan Mari Lopez, Antton Etxebeste eta Carlos Aiz-

purua bertsolariekin.

### Urtarrilak 6 Ortzirala

Erakusketa Askapena erakunde internazionalistaren eskutik egun osoan irekita. Herrialde ezberdinetako artisautza erakutsiko da. Arratsaldeko 6etan futbolin eta mus txapelketak Aurtitz auzoan eta gaueko 10etan zine emanaldia Herriko Etxeko ganbaran.

### Urtarrilak 7 Larunbata

Erakusketak irekita segituko du. 6etan hitzaldia. 8etan talo



Bittor Aiape rockero gaztea Iturenen izanen da larunbat honetan

eta gaztain jatea sagardoz bustirik eta

gaueko 10etan kontzertua, Bittor Aiape

eta Eragaitz taldearen eskutik.



## Iñauteriak asteburu honetan ospatuko dira

Errege egunean baserrietan eta larunbatean herrian ibiliko dira eskean gazte kuadrilak

EZKURRA

Errege egunean hasiko dira inguruko lehendabiziko inauteriak, Ezkurakoak hain zuzen. Ohitura denez, lehen egun honetan baserrietako buelta egingo dute gazte kuadrilak. Tikitixaren soinu zoko guzietara iritsiko da aurten ere. Larunbatean gisa berean eskean ibiliko dira, baina oraingo honetan herrian. Urtero bezala bazkaria eta afaria egingen dute 'Mañukorta' eta bes-



Baserriz baserri eskean ibiliko dira gazteak

Arg.: Reyes GOÑIK utzia

te bertsolari baten laguntzarekin. Hau idazterakoan segurtatzetik ez badago ere, larunbaterako ahare apostu bat prestatzeko asmoa zuten antolatzaileek.

Bukatzeke, bazkaria egingen da igandean, hiru egunez jotake soinulari aritu diren Elortza anaiak trikitilariekin batera.

❖ **Langarra** euskara taldeak antolatuta, ponietan ibiltzeko aukera izan zuten haurrek Inoxente egunean.



**Goizueta**

## Ligaren lehen fasea ahaztu nahi du Umore Ona futbol-sala taldeak

Jai egun hauen ondoren ekingo dio bigarren faseari, hirugarren mailara ez jeisteko helburuarekin

**ESTEBAN AROZENA**

Umore Ona futbol salako ekipoarentzat aurtengo denboraldia, orain arte behintzat, ez da iazkoa bezain oparoa izan. Lehengo urteko igoeraren ondorioz, Gipuzkoako bigarren mailan neur-tu diru indarrak Umore Onak, eta ligaren lehen zatia ezin okerrago joan zaio, zortzi tal-den artean azkena sailkatu baita. Dena den, Ibon Elizegi delegatuak esan zigunez itxaropentsu ekingo dio-te bigarren faseari, ba-tez ere, azken partidu-etan eman duten jo-ko maila ikusirik. Orain arte, hiru mul-tzotan banatuta zeu-



**Amnistiaren aldeko omentzeroa aurten ere eskean ibili da**

Argazkiak: Xabier Mikel UITZI

den 24 ekipok lau tal-de osatuko dituzte ko-pa deitzen dioten kon-petizio honetan, hau da, bakoitzean sei eki-po. Lehen faseko ha-mabi hoberenak igo-eraren bila borrokatu-ko dute. Beste hama-bik aldiz, Umore Ona

barne, hirugarren mai-lara ez jeistea izango dute helburu. Beraz, oraindik ez dute deus galdu goizuetarrek.

### Pilota taldea lehen mailara

Umore Onarekin segituko dugu, baina



**Umore Ona elkarteak bazkari batekin ospatu zuen bere hamargarren urtebetetzea**

orain pilota atalaren garaipenak aipatuz, es-tatuko klubaren arteko txapelketan lehen di-bisioan jokatu baidu hurrengo denboral-dian. Bizpahiru urte bigarren mailan joka-tutakoan, pixkanaka helburuak betetzen ari

dira Umore Onakoak, herriko pilotariei da-gokien kategoria lor-tuz. Badirudi, hurren-go urtean Apeztexeak ere Umore Onarekin jokatu duela eta ho-rrek asko indartuko du ekipoa inolako za-lantzarik gabe.

**Areso**

## Euskararen eguna ospatu zen lehenengo aldiz

Umeek prestatutako bertso saioak, pailasoek eta herri kirol probek animatu zuten eguna

**JUANA MARI SAIZAR**

Euskararen eguna ospatu zen lehen dabi-ziko aldiz abenduaren 8an. Eguraldiak gehie-gi lagundu ez bazuen ere, herritar dexente azaldu zen plazara, han baitzeuden esko-lako umeak, egun ho-rretarako prestatutako bertso saio batean. Pailasoak giro polita jarri zuten, guraso eta umeak lanean jarritz jokuen bidez. Arra-tsaldean, herriko gaz-



te batzuk herri kirole-tan parte hartu zuten,

eta ikusminik haun-diena herriko gazte-

Herriko neska-mutikoek omentzeroren bisita izan dute aurten ere.

Arg.: Juana Mari

txoak sokatiran ikus-teak sortu zuen.

*ttipi-flash*

### ❖ Aziendak

dituzten baserrita-rrak udaletxetik pa-sa beharko dute ka-tastroa egitera, be-harrezkoa baita 1995eko suben-tzioa kobratzeko.

### ❖ Egur loteak

markatuak daude dagoeneko. Egurra behar dutenek uda-letxetik pasa be-harko dute.

### ❖ Fax berria

jarri dute udaletxe-an eta herritarren zerbitzura dago.

### ❖ Bi ordenagailu

eta irakasleendako dohaineko ikasta-roa lortu dute es-kolan.





# Udal gestioari buruzko auditoria egitea eskatu dio udalbatzak Kontu Ganbarari

Lanak kontratatzerakon ilegaltasunak salatu zituen Andoni Esparza udal idazkariak

JOSEBA AZPIROZ

Prentsa edo irratia-  
ren bidez honez gero  
ikasiko zenuten uda-  
lean istiluak sortu di-  
rela udal idazkariak  
aurkeztutako txosten  
baten inguruan.  
Informean, herriko  
obrak egiterakoan  
idazkariaren ustez  
egin diren irregularta-  
sun eta legez kontra-  
koak salatzen dira eta  
Kontu Ganbarari az-  
tertzeko eskaera ere  
jasotzen du. Gai ho-  
nen inguruan, aben-  
duaren 23an eginda-  
ko aparteko batzarre-  
an, Udalak HBk aur-  
keztutako mozioa  
puntuz puntu eztabai-  
datu zuen.

Lehen puntuan,  
"informearen eduki-  
nak orokorki egiaz-  
kotzat eman eta geu-  
re gain hartu dagoz-  
kigun erantzukizun  
guztiak, norberare-  
nak, nahiz kolektibo-  
ak" eskatzen zen. HB  
eta independenteen  
aldeko botoa, Barbe-  
riaren abstentzioa eta  
EAren aurkakoa jaso  
zuen. Bigarren pun-  
tuan, txostena Kontu  
Ganbarara bidaltzea  
eskatzen zen, bertan  
aztertua izan dadin.  
Puntu hau ahobatez



**Alkateak adierazi duenez, idazkariak emandako datuak ez dira egiazkoak**

Arg.: ARTXIBOA

onartu zen eta EAK  
proposatuta, auditoria  
1983az geroztik egi-  
tea eskatuko da.  
Ikerketa hau egitera-  
koan laguntza guztia  
emateko prest agertu  
ziren udalkideak.

Azken puntuan,

"alkatearen eta zine-  
gotzi guztien ondare-  
en auditoria bana,  
norberarenahizfa-  
miliarena" egitea es-  
katu zaio Kontu Gan-  
barari. HB, UIL eta  
Barberiarren aldeko  
botua jaso zuen pun-

tu honek, EAKo zine-  
gotziak kontra azal-  
tzen ziren bitartean.

Pleno berezi honek  
ikusmina sortu zuen  
leitzarren artean eta  
horren erakusgarri, 30  
bat lagun bildu zirela  
batzar aretoan.

## Espaloietako obren 12 milioi t'erdiko azken ordainketa egin du udalak

Polemikaz beteta-  
ko batzarre honetako  
beste puntu batetan,  
Azpiroz y Saralegui  
enpresari egin beha-  
rreko espaloietako  
obren azken ordain-  
ketaz mintzatu ziren  
(12.432.287 pezeta

guztira).

HBko zinegotzien  
ustez ez zen oraindik  
ordaindu behar, zen-  
bait lekuetan obrak bu-  
katzekoak daudelako  
eta egindako lanak ez  
direlako behar bezala  
egin, auzokoen kexak

adierazten duten be-  
zala. Halere, gainon-  
tzeko korporazio ki-  
deen ustez, enpresak  
agindutakoa bete due-  
nez ordaintzea eraba-  
ki zuten, Herri Bata-  
sunakoen absten-  
tzioarekin.

ttipi-flash

## Uhaldeen kalteak moldatuz

Leitzarren eta Go-  
ritzarran erreketan,  
1993ko urte bukaer-  
an uhaldeek sortu  
zituzten kalteak  
moldatzeko lanak  
eginen ditu Nafa-  
rroako Gobernuak,  
5.278.777 pezetako  
aurrekontuarekin.  
Gehien bat Borda-  
txuri aldeko ezpon-  
dak moldatuko dira  
eta horretarako pa-  
retak sendotuko di-  
ra.

## Amnistiaren aldeko afaria

Amnistiaren Alde-  
ko Gestorak, afari  
bat antolatu du os-  
tiral honetarako (hi-  
lak 6), gaueko 9 eta-  
rako, eskolako jan-  
gelan. Bertan Xagu  
ta Xator ta Satitxus  
Band taldearen  
emanaldi paregabea  
ere izanen da.

## Pilota partidua

Urte Zahar egune-  
an, jokatzekoa zen  
Leitzan Diario  
Vasco eta Euskal  
Telebistak antola-  
tutako finalaurreko  
partidu bat.

**ITURENGO KULTUR EGUNAK**  
**Urtarrilaren 7an (larunbata),**  
**gaueko 10etan KONTZERTUA:**

✂ Bittor AIAPE  
✂ ERAKATZ

**Dohainik**

**GAZTELU ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA



**Baztan**

# Hautagai bakarria izaterakoan 15 alkateak automatikoki aukeratu ziren

Zigako batzarreak ez zuen hasieran alkategaia onartu, baina batzar nagusian Lorenzo Kerejetari eman zitzaion kargua

JOSEBA ETA PABLO

Botuak kontatzen ez da lan haundirik izan aurtengoan, Baztango 15 herrietan alkatetzarako hautagai bakarria aurkeztu baitzen. Honela, automatikoki alkateak izendatu zituzten Zigan ezik. Lorenzo Kerejeta bertako alkategaia, karguak elizarekiko duen egin-beharrak betetzeko prest ez omen zegoen eta horregatik, batzarreak ez zuen alkate bezala izendatu hasiera batean. Gero, batzar nagusian bera aukeratu zuten kargu horretarako.

Zigakoarekin batera, bertze zortzi herrietan alkate berria izanen dute. Bernardo Amiano (Amaior), Fermin Barazabal (Azpilkueta), Juan Luis Karrikaburu (Erratzu), Lorenzo Bikondoa (Arizkun), Ramon Irisarri (Elbete), Pedro Mari Oskariz (Lekaroz), Jesus Mari Gamio (Berroeta) eta Pedro Jose Arretxe (Almandoz).

Bertze sei herrietako alkateak, azkeneko legealdian aritu ondotik bertze bi urte ge-



Alkate guziak automatikoki izendatu zituzten, herri bakoitzeko hautagai bakarria aurkeztu baitzen

Arg.: ONDIKOL

hiagoz karguan segituko dute: Jon Francesena (Elizondo), Juan Arretxea (Gartzain), Juan Meoki (Irurita), Jose Antonio Bergara (Arraioz), Florentino Goñi (Oronoz) eta Jaime Iantzi (Aniz).

Zigako afera mol-

datu ondotik, hurrengo bi urtetarako alkate kargua beteko dute arestian aipatutako hamabortz lagunek. Abenduaren 26ko batzarrean lau kuarteletako junteroak eta mendiko komisionatuak aukeratu ziren.

Junteroak honako

hauek izanen dira: Baztangoizan Jose Manuel Mariezkurrena (Azpilkueta), Elizondon, Juan Jose Etxeberria (Lekaroz), Herberean Gregorio Pagazaurtundua (Gartzain) eta Basaburuan, Rafael Agerre (Almandoz).

## 63 milioi herrietako argiteria hobetzeko

Amaior, Aniz, Arraioz, Azpilkuetako Apaioa eta Zuaztoi auzoak, Berroeta, Gartzain, Irurita eta Zigako argiteria hobetuko da, Hirurteko plangintzaren barnean. Proiektu honen aurrekontua 63 milioi pezetakoa izanen da, % 65a Nafarroako Gobernuak ordainduko duelarik, 1995ko aurrekontuaren kargura.

Lekaroz, Elizondo eta Azpilkuetako Urrasun auzoko argiak moldatzeko asmoa zegoen hasiera batean, baina Nafarroako Gobernuaren aginduan ez dira ageri. Ustekabe hau ikusita, Baztango udala afera lehenbaitlehen moldatzen saiatuko da.

## Elizondo sarrerako platanoak moztu ondotik kexu agertu dira herritarrak

Elizondoko sarreran, Santiago karrikan zeuden bortz platonondo zahar (80 urtetik goitikoak) moztu dituzte Balleko Etxearen aginduz, es-

paloi berria egiteko asmoarekin.

Honek, hainbat bizilagunen haserrea eta kexua agertarazi du eta elizondotar batek, Ana Marin pintoreak hain

zuzen, Lopez Bordesias, Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariari luzatu dio bere protesta.

Miguel Angel Adin alkateordeak udalaren

erabakia defendatu du, bere erranetan ez baitzegoen bertze aterabiderik. Halere, zuhaitz gehiago ez omen dira moztuko, bere ekimeenez behinipein.

## MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO





Baztan

# Ardi esnearen prezioak goitira egin du

Baztandarren Biltzarraren gazte sailak kartutxoak bildu ditu inguruko mendietan

PABLO MENDIBURU

Ardi esnearen litroa iaz baino 10 pezeta gehiago, 120 pezeta ordainduko zaie nekazari. Baztango nekazariak ere Danone-ekin kontratua egin berri dute. Urte beteko kontratua eskeini zuten. Oinarritzko prezioa 48 pezeta/litro neguan eta 45 pzta/litro udan. Bertze kualitateak kontutan hartuz, dextente igotzen da prezio hori.

## Kartutxo bilketa...

egin zuen Baztandarren Biltzarraren Gazte sailak inguruko mendietan. Bertzalde, futbito txapelketa bat ere antolatuta dute. Guztira 16 taldek eman dute izena, horietatik 4 neskenak.



Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldien barnean herri crossa burutu zen abenduaren 18an

Argazkia: ONDIKOL

## Erregeak...

opariz beteak etorriko zaizkigu. Elizondo, Irurita eta Erratzun kabalgata egiten dituzte. Oraindik olentzeroak baino ohitura haundiagoa du.

## Eguberriak Basaburuan

Olentzeroa atera zuten pasiatzera Aniz eta Berroetan. Egund berean Almandoen izugarritzko besta egin zuten Benito ostatuan

eta Zigako haurrak etxez etxe ibili ziren kantari, beraientzat goxokiak eta gerrako gaixoentzat sendagaiak eskatuz.

ttiipi-flash

## Margo erakusketa

Urtarrilaren 2tik 27ra, Lucia Belzune-ni margolariaren lanak ikusgai egonen dira Arizkune-nean Kultur Etxean.

## Zigako plaza

konpontzen ari dira. Zola gaizki zegoenez, plazari itxura berria eman zaio, zementuzko adokinez estaliz zola. Lanean Goienetxe enpresakoak ari dira herriar batzuen laguntzaz.

## Ikatzateako Benta

inguruan, gasna ko-operatibaren ondoran, Erratzuko okindegiak gain likore fabrika bat egiteko asmoa dago.

## Presoak bisitatzeko

asmoarekin, jendez betetako autobusa joan zen Urtezahar egunean Valladolid aldera.

**Esquisaroi**  
**Jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**

ARROPA DENDA



**CERVANTES**  
**HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**BAZTAN**  
**FUNERARIA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA  
SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373



**JATETXEA**  
Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
**ELIZONDO**

**Galarza**

**MENDI**  
**OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 580313  
**ELIZONDO**

**MAGNETISTA**  
**NATUROPATA**



**943 - 62 30 55**

**San Martzial, 7 - 4.**

**IRUN**

Zentru ez sanitarioa

**IKUSMENAREN**  
**BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Hipermetropia
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**KONTSULTA ORDUTEGIA**

Arratsaldetan 2etatik 10etara. Ordua eskatu

**ONDORIOETATIK**  
**INDARTZEKO**

- Diabetea
- Asma
- Larru-azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata...

Bixkortzea  
Artritis, Erreuma  
Artrosia  
Lunbalgia  
Bihurdurak

**GIHARRE**  
**ARAZOAK**





# Olentzeroak opariak ekarri zizkien ikastolako neska-mutikoei

Bertzalde, Sarako hamar bat artisten lanen erakusketa zabalik da urtarrilaren 29a arte ospitale ohian

MIXEL ETA JACQUELINE

Abendoaren 20a zen, neguak ez zuen oraino bere hotz mina erakutsia eta Olentzero herriko ikastolatik pasatu zen. Gure ikazkinak zer utzi ote zien ikasle ttikieri? Ikatza? Bai, pixka bat erraiteko adina; bazuen bertzerik ordea bere ikatz zakuan, opariak eta goxokiak. Beraz burasoek, haurrek eta erakasleek arratsalde zoriontsu baten iragaiteko parada ukan zuten. Erran gabe doa heldu den urterako hitz-ordua oraindant finkatua dagoela.

Aurten bezala, opariz bete eta etorriko zaitugu Euskal Herriko mendietako ikazkina.



Olentzero opariz bete eta etorri zen ikastolara

## Sarako artisten erakusketa ospitale ohian

Abendoan hasi eta urtarrilaren 29an bururatuko da ospitale ohian dagoen erakusketa.

Hor bertan bilduak dira Sarako hamar bat artisten lanak, izan eltzegile, margolari edo marrazkilari. Guztiek

badute zer erakutsi.

Artelan guzti hauen ikustera gonbidatuak zarete, merexi dute eta!

## Iparraldeko 33. mus txapelketa jokoa

Iparralde osoan jokatzen den hogeita hamairugaren mus txapelketari dagozkion kanporaketak hasiko dira urtarrilaren hasieran.

Sarako kanporaketei dagokienez, bi lekutan burutuko dira aurtengoan. Talde bat Portua jatetxean ari-tuko da eta bertzea ber-ritz, Herriko Etxeko edantegian (urtarrila-ren 6an).

Mus txapelketa ho-netan aritu nahi duenak, bere aukera egin dezala eta bi lekueta-rik batean bere izena eman dezala lehen-baitlehen.



Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • 580562  
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA  
BAINU MOBLEAK**

*Egoki-ren banatzaile  
baimendua*



## HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



## EZKALO

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna • API 129  
INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan • DONEZTEBE

*EGUBERRI Zoriontsuak eta  
URTE BERRI ON opa dizkizue*

- BRACCO ALEMAN Arrazako 3 hilabeteko zakurra salgai, uso eta oilagor ehizirako espeziala.  
Prezioa: 18.000 pezeta. Bildotsak ere onartzen dira trukean



Urdazubi

# Eguberriak giro ederrean joaki dira

Errege eguneko erregaloen zain daude oraindik gaztetxoak

ALIZIA OLAIZOLA

Abenduaren 22an eskolako hurrek bes-ta izan zuten. Hantxe ibili zirenen Olen-tzeroarekin kantuan eta dantzan bi akordiolariz lagundurik.

Bainan ikuskizun gehiago ere antolatutak zituzten. Eguberri-etako saskia eta hiru opariren zozketa, adibidez. Berehala eza-gutu ziren sarituak.

Eta egun huntan aurtengo hirugarren haurra ere sortu zen, Maddi Halty Ageraldea.

Urte zahar afaria aurtan ere Indianoa-baitan egin zen. Animazio handia eta dantzaldia Modesto-ekin goizalderaino.



## 1994. urteko errepasoa

• **Ezkontzak (3):** 14an) eta Maddi Halty (abenduaren 22an) jaio ziren.

• **Heriotzak (3):** Miguel Iturburua (otsailaren 15an, 85 urte), Martina Cordoba (maiatzaren 9an, 92 urte), Josefa Iturburua (abenduaren 4an, 80 urte) hil ziren aurtan.

• **Jaiotzak (3):** Iban Inda (urtarrilaren 24an), Eneko Ariztia (apirilaren

## Heriotza

Abenduaren 14an Irungo Patxi Gomez, 23 urteko gaztearen heriotza izan zen. Herriko jatetxe batean egiten zuen lan eta gazteen laguna zen. Urtarrilaren 7an, Setan, meza aterako diote Urdazubiko elizan bere lan-kide eta lagunak.

Erregeen opariaren esperoan daude neska-mutiko hauek

Arg.: Alizia

Gida 95

Baztan, Bortzirriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituen.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • 63 11 88

ttipi-ttapa

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle



ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK  
LA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25





## EZKONTZAK

**Jose Javier Abad Viela eta Gema Navarro Mangado**, Zaragozakoak (Baztanen), abenduaren 19an.

## JAIO TZAK

**Ibai Zugarramurdi Elizalde**, Goizuetakoa, abenduaren 20an.

**Maddi Ane Txoperena Iribarren**, Lesakakoa, azaroaren 23an.

**Xabier Arriola Perez**, Lesakakoa, abenduaren 5an.

**Arritxu Mujika Carrion**, Lesakakoa, abenduaren 13an.

**Maddi Halty Agerralde**, Urdazubikoa, abenduaren 22an.

**Imanol Bizente Sanzberro**, Etxalarkoa, abenduaren 10an.

**Ana Sarratea Arregi**, Doneztebekoa, azaroaren 20an.

## HERIOTZAK

**Nicolás Arruabarrena Iarza**, Lesakakoa, abenduaren 11an, 77 urte.

**M<sup>a</sup> Luisa Albistur Mikelarena**, Lesakakoa, abenduaren 17an, 92 urte.

**Jose Inda Iturralde**, Donamariakoa, azaroaren 30an, 79 urte.

**Isabel Irigoien Azkona**, Elizondon, abenduaren 5ean.

**Victoria Ruiz Martinez**, Elizondon, abenduaren 7an, 99 urte.

**M<sup>a</sup> Jantusa Etxenike Iturriria**, Iuritikoa, abenduaren 13an, 83 urte.

**Micaela Lakuntza Navarro**, Elizondon, abenduaren 15an, 80 urte.

**Patxi Gomez Arretxea**, Irungoa, abenduaren 14an, 23 urte.

**Antonio Espelosin**, Etxalarkoa, abenduaren 19an, 96 urte.

**Patxiku Ibarra**, Sunbillakoa, abenduaren 11an, 87 urte.

**Antonio Altzugarai**, Sunbillakoa, abenduaren 22an, 70 urte.

**Inozentzia Iriarte**, Sunbillakoa, abenduaren 25an, 81 urte.

**Sabino Korta Apeztegia**, Berakoa, abenduaren 4an, 96 urte.

**Francisca Etxeberria Unsain**, Berakoa, abenduaren 10an, 52 urte.

**Antonio Espelosin Zelaieta**, Berakoa, abenduaren 19an, 96 urte.


**Jesus Juanena Aldabe**, Donezteben, abenduaren 3an, 41 urte.

## 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,  
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat  
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,  
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,  
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,  
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,  
hizkuntz akademia bat, mokatak eta pinturak,  
etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.  
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial



**LUIS  
MARIANO**

Irun



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak.....088/061

Osasun Zentruak

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe.....450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leizta.....510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea.....102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua.....246750

Virgen del Camino

Erresidentzia.....109400

Gurutze Gorria.....226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea.....614600

Gipuzkoako ospitalea.....460299

Erresidentzia.....453800

Anbulatorioak

Irún.....630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz.....450242 / 450342

DYA

Lesaka

(Larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....637404

Elizondo.....580924

Lesaka.....637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi.....592255

Garraioak

Bidasotarra.....631150

Baztanesa.....580129

Leitzaran.....515018

Aberiak:

Iberduero.....450335 / 450336

## Arkupeak elkarteak 1995erako programa presentatu zuen

800 jubilatutako elkarteak ziren Donezteben urteari akabera emateko bestan

Azkenean abenduaren 13ra aurreratu behar izan zuten urteari agurra emateko egin ohi duten besta. Goiz goizetik, inguruko herri guzietatik autobusez hurbildu ziren jubilatutakoak, eta 11etan Meza Nagusia entzun ondotik, urtearen balantzea eta aurtengo aktibitateen berri entzun zuten Doneztebeko zinean. Eguerdiko 2ak aldera, bazkaria izan zuten kasik 800 jubilatutako Bordatxo dantzalekuan, eta pentsatzekoa denez, ondotik ez zen animaziorik faltatu.

### AURTENGO PROGRAMA

Kulturatsedenezko aktibitateei dagokienez, Iruñeko Planetarium-a eta katedrala bisitatzea, 'Arkupeko lehiatila' as-terro Xorroxinen egiten duten irratia, 'Ezki errepika' lehiaketa, 'Arkupeak' aldizkaria, gimnasia ikastaroak, herriko eta herrialdeko mus txapelketak, hitzaldiak, jubilatuen eskulan erakusketa eta Pilota Eguna antolatzea dira garrantzitsuenak.



Arkupeak 2.300 bazkide ditu momentu hauetan

Erligioak ere tarte zabala izanen du Xabier, Uxue, Lurdes, Arantza-zu, Urkiola eta Lezora

eginen diren erronari-ekin. Gainera, herri bakoitzean Jubilatuen Bestak eta omenaldiak.

Bidaiei dagokienez, Es-tatu Batuak, Gran Ca-naria, Benidorm, Puen-te Viesgo bainuetxea...

### Bertizko Partzuergo Turistikoa ere 94ko balantzea eta 95erako asmoak aurkeztu ditu

Iruñean emandako prentsaurreko batean, Pedro Perez lehenda-kariak, Julian Lekuona idazkariak eta Javier Rozas 'Acis'eko ge-renteak positibotzat baloratu zuten iaz Partzuergoak eginda-ko lana. Kasik 50 mi-

lioia pta. gastatu zuten iaz, eta urte honetara-ko, udalen aldetik la-guntza haundiagoa es-katu dute eta baita Partzuergoan parte hartzen duten elkar-te-en aldetik ere.

Bertzalde, Turismo Partzuergoan bildurik

dauden Merkatarien el-karteko 21 merkatarik parte hartu dute aben-duaren 14tik 16ra, Juanseneako erakus-leihoen ikastararoan.

Lehendik, Marke-ting ikastaroa ere egi-na zuten merkatarik hauek.



## INAKI ITURRIA

### INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

### Instalazio zaharren berritzeak

### PORTERO AUTOMATIKOAK

### Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta, 12

☎ 635028 - 625246

31760 ETXALAR

Curtidores, 5 - 1. ezk.

☎ (943) 61 24 24

20300 IRUN

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55  
BERA

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



## DATUAK

❖ Koteto Ezkurra, 21 urteko erremontelari doneztebarra da.

❖ Eizagirrekin batera 40-30 irabazi zien abenduaren 18an Altuna eta Angel Lekunberriri txapelketaren finalean. Izarren txapelketa ere irabazi du aurten herriko Etxeberriarekin

❖ Hamasei urtekin debutatu zuen profesionaletan Euskal Jai Berrin. Aitzinetik laxoan eta eskubaloian aritua zen.

❖ Bere aita Josetxo Ezkurra pilotaria zen. Eskuz binaka, munduko txapeldun suertatu zen Montevideon 1955ko txapelketan.

TESTUA:  
AITOR AROZENA

# Koteto EZKURRA: «Etorkizunean erremontelari onena izatea da nere asmoa»

**BI TXAPELKETA NAGUSIAK IRABAZI ONDOTIK, ZER BALANTZE EGITEN DUZU AURTENGO DENBORALDIAZ?**

Balantze arras positiboa egiten dut, nere karreraren sendotzeko urtea izan baita. Esperientzia irabazi dut eta hori txapelketetan nabaritzen da. Orain arte promesa bat nintzen eta txapelketa hauen ondotik, jendeak errealitate bat bezala ikusten nau.

**FINALEN EZ ZINETEN FAVORITOAK ETA ERREX IRABAZI ZENUTEN. NON EGON ZEN GILTZA?**

Kantxara ateratzeko bi bikoteek izan genuen jarrera izan zen neretzat klabea. Beraiek kuzkurtuak atera ziren eta gu berriz lotsa gabekeria haundiz. Eta egun batean suertea alde baduzu, gauzak ongi ateratzen dira... Neretzat ere beraiek ziren favoritoak forma onean iritsi baitziren finalera, baina sorpresa ematea espero nuen.

**ZU LAXOAN HASI ZINEN. HARROBI ONA DA LAXOA ERREMONTERAKO?**

Bai, pilota jotzeko modua ia berdina baita. Oinarri berdintsuak



ditu eta laxoan aritu denak erremontean ongi moldatzeko arrisku gehiago du. Errate baterako, gaur egun profesional bezala Doneztebe eta Iruritako hiru na erremontelari gabil-tza, guztiak laxoatik ateratakoak.

**21 URTETAN BINA NAKAKO TXAPELKE-**

**TA INPORTANTEENAK IRABAZI DITUZU. ETORKIZUNERAKO ZEIN ASMO DITUZU?**

Buruz buruko txapelketa oraindik hordago eta nere aspiraziorik haundiena, aurrelarien artean koadroko erremontelari onena izatea da.

**AURTEN PARTIDU AUNITZ JOKATU DITUZU. EZ DAGO SOBERA KARGATZEKO ARRISKURIK?**

Bai, egia erran denboraldi hasieran ongi jokatzen hasi nintzen

eta partidu aunitz jarri zidaten, sobera, hila-betean hamabortz edo hamasei. Gero nerone arduratu nintzen partidu gutiago jokatzear, hiru hilabetetik hamabi edo hamahiru. Erregulartasun bat mententzeko behar beharrezkoa da.

**AKITZEKO, NORI ESKEINTZEN DIOZU AZKEN TXAPEL HAU?**

Txapela familia guziari eskeintzen diot eta partiduetara animatzera joaten diren jarraitzaile guziei.

*«Aurtengo denboraldiaz arras balorazio positiboa egiten dut, nere karrera sendotu baitut. Jendearentzat promesa bat izatetik errealitate bat izatera pasatu naiz»*



# Hirugarren mailako goleatzaile onena da Mikel Garbalena futbolari baztandarra

Hogeitahiru urteko Arizkungo aurrelariak hamabortz gol sartu ditu lehendabiziko hamazazpi ihardunaldietan

Lehendabiziko hamazazpi partiduetan hamabortz gol sartu ondotik, Nafarroako hirugarren mailako goleatzaile onena bezala ageri da Mikel Garbalena, Baztan taldeko aurrelaria.

23 urteko arizkundararen erranetan, "aurtengo da nere bizitzako denboraldirik onena". Kategoriako 'pitxitxi'aren ustez maila haundiko jokariak daude Baztan aldean eta "Belategatik eta Iruñeraino dauden kilometroengatik ez bultz, gutenez dozena erdi bat jokari bigarren mailan jokatzen arituko ziren lasai ederrenan".

Taldearen martxari dagokionez, "Unai Meoki eta Garaikoe-  
txea itzuli direnez geroztik aunitz hobetu du-



Mikelek baloiez bete ditu kontrakoaren sareak

Arg.: ONDIKOL

gu" dio Mikel Garbalenak. Aurten, seigarren postua eskuratzeko

helburua du Baztanek, "guretzat arras postu ona baita".

## Mikel Senar Nafarroako hirugarren mailako aizkolarien lehen txapelketa

Abenduaren 18an burutu zen Etxarri Aranatzeko Nafarroako hirugarren mailako lehen aizkolarik txapelketa. Lau aizkolarik parte hartu zuten lehen txapelketa honetan: Mikel Senar (Lizarraga), Juanito Andueza (Lakuntza), Josetxo Telletxea (Arraioz) eta Rafael Untxalo (Ituren). Egin beharreko lana berriz, 4 enbor moztea, bi kanaerdi-koak eta bertze bi 45 ontzetakoak.

Senar izan zen txape-



Lehen aldiz hiru mailatan banatu dituzte Nafarroako aizkolarik

pelduna (9' 38"), Anduezak 8 segundu gehiago behar izan zituen. Eskualdeko ordezkariak motelago ari-

tu ziren. Telletxea arraioztarrak 11' 59" behar izan zituen lana akitzeko eta Untxalo iturendarrak 13' 04".



### Juan Telletxea aizkolarik desafia bota du

Juan Telletxea, 19 urteko aizkolarik donetebarrak apostu baterako desafio egin die Malerreka eta Bortzirietako aizkolarik guziei, Mikel Mindegai eta Donato Larretxeari ezik. Guttieneko lana 54 ontzetako hamar enbor moztea izan da. Abenduaren 26a baino lehen erantzuna jaso badu apostu ikusgarria izanen dugu.

### Bote pronto

#### ❖ Pilota txapelketa

Olaizola goizuettarrak eta Almandoz lesakarrak osatutako bikoteak aukera polita zuen urte zahar egunean Leitzan, Euskal Telebistak eta Diario Vasco egunkariak antolatutako pilota txapelketaren finalera ailegatzeko. Bertze goizuettarra, Apezetxea alegia, finalaurretan kanporatu zuten.

#### ❖ Goizuetako

pilotariek in segituz, Umore Ona elkarte-koak estatuko klub-arte txapelketan lehen dibisioan jokatuko dute hurrengo denboraldian.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



#### Koteto Ezkurra

Doneztebeko erremontelaria.

21 urteko aurrelariak bigarren txapel garrantzitsua bururatu du urte bikain baten ondotik. Ikuskizuna ematez gain emaitza onak ere eskuratzeko gai dela erakutsi du aurrelari onena izan nahi duen doneztebarrak.



#### Beti Gazte eta Umore Ona futbol-sala taldeak

Lesakarrak eta goizuettarrak Gipuzkoako 2. mailan jokatzen dute eta lehen fasean azkeneko bi postuetan gelditu dira. Orain kategoriaz ez jeisteko intentzioarekin arituko dira 2. fasean, beraz, animo!



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

#### ► Urtarrilaren 2tik

**27ra** Arizkunenea kultur Etxean Lucia Belzunegi margolaria-  
ren erakusketa.  
Astegunez 5,30etatik  
8etara eta jai egunez  
eguerdiko 12etatik  
2etara.

#### ► Urtarrilaren 8a

**arte** Sobrino ostatuan  
Tomas Sobrinoren  
margolanak ikusgai.

## KULTUR EGUNAK

### ITUREN

#### ► Urtarrilaren 5, 6

**eta 7an.** Errege bez-

peran, herri afaria  
Juan Mari Lopez,  
Antton Etxebeste eta  
Carlos Aizpurua ber-  
tsolariekin. Errege  
egunean Askapenaren  
erakusketa eta zine  
emanaldia Herriko  
Etxean. 7an, talo eta  
gaztain jatea, sagar-  
doz bustia. 10etan  
kontzertua Bittor  
Aiape eta Eragaitz tal-  
dearekin. Xehetasun  
gehiago 17. orrian.

## INAUTERIAK

### EZKURRA

#### ► Urtarrilaren 6tik

**8ra** Larunbatean  
bazkaria eta afaria  
bertsolariekin.  
Igandean bazkaria tri-  
kitilariekin.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### Ahate paparra piperbeltz saltsan

#### Osagaiak

• Ahate paparra edo magret-a  
• koñaka • oporto • espainiar  
saltsa • esnegain likidoa • pi-  
perbeltza (hautsean eta piko-  
rretan) •

#### Prestatzeko manera

Ahate paparra su-etzian jarri egi-  
ten oliorik bota gabe. Buelta ba-  
tzuk eman eta botatzen duen

gantza-olioa kendu egi-  
nen diogu. Bertze ontzi  
batean, oporto, koña-  
ka eta piperbeltz piko-  
rrak eta piperhautsa ja-  
rriko ditugu. Guzi hori be-  
rotu denean, sua eman alkoho-  
la erretzeko. Erre denean es-  
painiar saltsa botatzen da eta 5  
minutuz irakiten utziko dugu, es-  
negain-likido zurrutada eder bat  
botaz.



Mª Josefa  
ARRETXE  
Amezti  
Jatetxea  
• DONEZTEBE •

Bertze 5-10 minutuz utzi saltsa  
loditu arte.

Serbitzeko, moztu paparra xe-  
rretan. Plateraren alde batean  
xerrak jarri eta bota gainetik sal-  
tsa. Nahi den lagungarriaz apain-  
gu (arroz xuria, patata egosiak).

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak):  
5.800 pzta.  
• **Zerri gizena** (95-100): 160  
pzta./kilo  
• **Zerramak**: 110 -120 pz-  
ta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:  
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanál  
Extra ..... 600  
1.koa ..... 570  
2.koa ..... 540

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanál  
Extra ..... 600  
1.koa ..... 570  
2.koa ..... 540  
Oharra: Prezio hauek 300-340  
Kg. kanalean dauzkaten idixko  
eta 200-250 kg. dituzten urru-  
xentzako.

#### • Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak**: urruxak 23.000 eta  
idixkoak 34.000 Pzta.  
**Mestizoak**: urruxak 23.000 eta  
idixkoak 34.000 Pzta.

#### Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 420 Pzta./  
Kg. Kanál. Behi gorri ona: 490  
Pzta./Kg. Kanál.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA  
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• **Bertako sagarrondoa** 930.  
• **Udareondoa** 930 pzta.  
• **Gereziondoa** 1.050 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

• **Piper txorizero** zientoa 800.  
• **Piper morro** zientoa 800.  
• **Piperminak** zientoa 600.

## Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka eta Sarako  
PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituen.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88



## Telefonoa kontratatzeko zenbait aholku


Telefonoaren eskaera hiru modutara egin daiteke: enpresara joz, 004 telefono zenbakira deituz edo delegaziora eskutitz bat igorritz. Gauza batzuk jakin behar ditugu:

- 1.- Gaur egun, 20 egun baino gehiago itxaroten duenak ez du telefonoa kontratatzeagatik ordaindu behar.
- 2.- 64 urtetik goitikoek eta elbarriek ez dute lehenengo kuota ordainduko, hau da, ez telefonoaren alokamendua, ezta linean jartzea.

### Telefonoaren ordainketa

Bi hilabetero egiten da bi modalitateen bitartez; betiko errezioboarekin eta faktura detailatuarekin. Erreziboan agertzen dena ulertu behar da:

- 1.- 'Abonu kuotak' direla-koak, telefono linea eta aparatoa izateagatik hilabetero ordaintzen den kopurua aurreko erreziboan ordaintzen da, nahiz eta telefonoa ez erabili edo telefonoa kentzeko eskatu.
- 2.- 'Automatiko zerbitzua' delakoa, hilabeteen egiten diren deiengatik ordaintzen



Beharrezkoak ditugun zerbitzuak bertzerik ez alokatzea kontutan hartu behar dugu telefonoa paratzerakoan

da, deiak pausotan neurtzen direlarik.

3.- 'Eskuzko zerbitzua' delakoa, operadorearen bitartez egiten ditugun deien balioa da.

4.- Aipatutako zerbitzuei dagokion BEZa edo IVA, %12koa da.

Lehenengo fakturan, 'hasierako kuota' bat eta telefonoa alokatzeagatik ordaintzen den "cuota de conexión" ere ordainduko ditugu.

### Aberiak

Aberia bat izanez gero, 004 zenbakira deitu baino lehen, gure eskubideak ezagutu behar ditugu:

- Telefonika, ahalik eta azkarren konpontzera behartuta dago. Konponketa, 6 egunetik gora eginez gero,

telefonorik gabe egon garen denborari dagokion kuota itzuli beharko digute.

- Erositako telefonoak ezik, era normalean, hau da, ongi zainduak dauden telefonoen konponketak dohainik izango dira.

Kontratuarekin batera, eskubide eta betebeharrak onartzen ditugu:

- 1.- Abonatuia, instalazioa zainzera behartua dago, teknikoei etxean sartzeko utzi behar die eta erreziboa dagokion epean ordaindu beharko du.
- 2.- Telefonoaren mozketak akats batengatik izanez gero, beste linea dohainik izateko eskubidea daukagu.

'IRATXE' NAFARROAKO  
KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

### ZINEA

#### DONEZTEBE

► **Urtarrilak 6, 7 eta 8an.** 'Los Picapiedra'.

► **Urtarrilak 14-15.** 'En tierra peligrosa'.

#### LEITZA

► **Urtarrilak 6-8.** 'Fresa y chocolate'.

► **Urtarrilak 8.** 'El reino del oso polar'.

► **Urtarrilak 13-15.** 'Filadelfia'.

### KANTALDIAK

#### ELIZONDO

► **Urtarrilak 7an.**

Gaueko 10etan, frontoian Mikel MARKEZ eta Amaia ZUBIRIA. Baztan ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldia.

#### ITUREN

► **Urtarrilak 7an.**

Gaueko 10etan, Bittor AIAPE eta ERAGAITZ taldearen kontzertua, Kultur Egunen barnean.

### GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urtarrilaren 2tik 8ra** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Urtarrilaren 9tik 15era** Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Urtarrilaren 16tik 22ra** Etxalar, NARBARTe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESACA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 Ora

## ETXEBIZITZAK

**LEGASA.** Etxea salgai herrian bertan, 240 m'ko baratzearekin. ☎ 450652.

**BERA.** Pisua salgai Eztegarra karrikan. ☎ 637184.

**Baztan-Bidasoa** inguruan borda edo baserria erosi-ko nuke. ☎ 396502 (Lurdes).

**Borda** bat erosi-ko nuke. Berdin zait eroria edo zutik egotea. ☎ (943) 550979 (Alfon).

## DENETARIK

**Neska** bat behar da lruñean pisu bat osatzeko. ☎ 581177.

**Gerezi** eta **intxaur** plantak salgai. ☎ 453037 (3etatik 4etara).

**Olivetti** CT606 idazmakina elektronikoa salgai. Memoriaduna da eta estreinu gabe dago. ☎ 580570.

**Miniorganoa** SK200 eta bere altaboza salgai. ☎ 510250.

**Kartelak,** afitxak, Bisita

txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

Edozein gisako **mobleak** eta **nekazal tresnak** erosi-ko nituzke, etorkizuneko museo bat osatzeko. ☎ 451518.

**Gaztelun** ganbara eta sotoa salgai. ☎ 451518.

**Dendarako** estanteak, balantza, mozteko makina, kontuak egiteko makina, fruta erakustaila, erakustaila frigorifikoa... salgai. Hagitz merke. ☎ 630680.

**SANGO** markako karrodenda salgai. Bi ohe zabal eta abantzea ere badu. ☎ 610738.

## AZIENDAK

**Zakur** gazte bat galdu da Leitzako Leitzalarrea mendian. Bracco arrazakoa da, gris iluna-beltza kolorekoa. ☎ 510343.

**Katakumea** salgai, perstiar arrazakoa. Ahal bada, ongi zainduko duen norbaitek eramatea nahiko ge-

nuke. ☎ 631331.

**Zakurkumeak** salgai, brako aleman arraza garbi-koak, 18.000 pezatan. ☎ 451518.

**Zakur ttiki** bat oparitzeko daukat eta etxean hazitako **6 ahate** eder salgai. ☎ 514213 (Goizueta).

**Zakurkumeak** salgai, Husky Siberiar arrazakoa, Espainiako txapeldun eta bi Pirenatan parte hartu duten zakurren kumeak dira. ☎ 637008.

## IBILGAILUAK

**Autoak** eramateko 'Voca' erremolkea salgai. Guterabilia. Galbaniztua, basculakorra eta freno edo galdaduna. 375.000 pezeta. ☎ 631157.

**Suzuki** Vitara, 3 urtekoa, 32.000 km. rekin salgai. ☎ 630289 (7etatik aitzinera).

**Honda** CR motoa salgai. Egoera onean. ☎ 943-620552 (Roberto).

**Yamaha** SZR 600R Genesis motoa salgai, NA-

AK, 1991koa. Bi kaskoa, moto-trajea, botak eta eskularruak oparitzeko nituzke. ☎ 630793 (2-2,30).

**Isotermo** kajoia, Frigicoll hozkailu ekipoarekin salgai. 3.500 kg. arte edozein ibilgailuarendako baliagarria. Errebisatua. ☎ 631157.

**Patrola** 4x4, furgoi gisakoa, 4 zilindro eta diesel motorrak salgai. ☎ 637704 (gauzez).

**Vespino** motoa salgai Lesakan. ☎ 637173.

## LANA

**Ordenadorez** edo makinaz lanak, bai euskaraz, bai erdaraz pasatzen ditugu. ☎ 637281 (Idoia). 9etatik 1etara eta 5etatik 8etara.

**Jostun** lanak egiten ditut: kremaileak aldatu, galtzen azpikoak hartu... Berako Iturlandeta 6, 1.A (Molinero gainean).

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin, urte osoan Beran zein Lesakan klase partikularrik emateko prest

(euskara, OHO, REM, frantsesa...). ☎ 630182-637839 (Klarisa).

## AGURRAK

**Zigako** Pablorentzat zorianak bere urtebetetzean (Abenduaren 11). Peña Triputxin-en partez.

**Zorionak** Jose Ramon Intxaustiri.

**Nere** 'Culo Poycho'-arentzat: azkenean ausartu naiz: Gure aurrean eta gure atzean dagoen guztia ez da deus gure artean dagoenarekin konparatuz. Maite zaituen "pinpollo" baten partez.

**Etxalarko** Joxe Ramon Goienetxe eta Errenteriako Joxeparendako, segitzeko ligatzen fuerte. Bere lagun baten partez.

**Berako** Plazako mutilen partez, Teresitak ez xiteko denda.

**Berako** mutilen partez, Asier L. eta Edurne E. berri-rik elkarrekin ateratzea nahi dugula.

# Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako  
PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

# Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituen.
- ✓ Herri- eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88



## IX. GURE TXOKOA IPUIN SARIKETA

Bidasoa eta Baztan inguruan bizi diren idazleentzat.

### • OINARRIAK:

- 1.- 16 urte beteak izan beharko du.
- 2.- Lanak 3 orri baino gehiagokoak izanen dira eta makinaz idatziak.
- 3.- Edozein gaia euskaraz idatzia, argitaratu gabea, eta sariketara bidaltzen duenak asmatua, onartuko da.

4.- Lan guztiak, egilearen izen eta abizena, zuzenbidea, telefonoa beste orritxo batean idatziak izan beharko dituzte.

5.- Lanak Urtarrilaren 23a baino lehen zuzenbide honetara bidaliko dira:

**GURE TXOKOA - KULTUR SAILA  
EZTEGARA - BERA (NAJARROA)**

6.- Saria oroigarria eta 30.000 Pztakoa izanen da eta epaimahaia aipamen berezia eman dezake.



## HAUR IPUINEN XXIII. BERA SARIKETA

1. Bidasoako Bortziriak eskualdean bizi direnentzat antolatzen da.

2.- Hiru maila izanen dira: A- 9 uete arte, B- 10 eta 11 urtekoak eta D- 12 urtetik 16tara.

3.- Edozein gaia euskaraz idatzia, argitaratu gabea eta sariketara bidaltzen duenak asmatua onartuko da..

4.- Lanak, orri bat baino gehiagokoak, eta hiru orri baino guttiagokoak izan beharko dira, eskuaz edo makinaz idatziak.

5.- Idazle bakoitzak bi ipuin bidaltzen ahal ditu.

6.- Lan guztiak, egilearen izen eta abizenak, zuzenbidea, telefonoa eta adina beste orritxo batean idatziak izan beharko dituzte.

7.- Lanak estalki batean sartuta **GURE TXOKOA**ra Kultur Saila **BERA**, urtarrilaren 23a baino lehen bidali behar dira.


8.- Maila bakoitzak sari bat izanen du: Oroigarria eta liburu mordo bat.

Eskuturrerako Erlojua.




150.000 Pta. Urtebetera.

Splendid Eltze azkar (4-7 litro) jokua.



175.000 Pta. Urtebetera.

Fagor Berogailua.



225.000 Pta. Urtebetera.  
125.000 Pta. 2 urtera.

Splendor Sukalderako Bateria.



375.000 Pta. Urtebetera.  
200.000 Pta. 2 urtera.

Thomson Musika-Ekipoa.



850.000 Pta. Urtebetera.  
400.000 Pta. 2 urtera.  
275.000 Pta. 3 urtera.

Olivetti Fax - Telefono - Erantzungailua.



1.775.000 Pta. Urtebetera.  
850.000 Pta. 2 urtera.  
575.000 Pta. 3 urtera.

Zatoz Euskadiko Kutxara, egizu ezarpena eta eraman itzazu etxera dagozkizun interesak.

**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**



**ERREGE EGUNEKO BESTA**  
**6 eta 7an**

**BORDATXON**  
DONEZTEBE • NAFARROA



EGUNERO **250.000 PZTA** ZOKKETA



**MAGNUM & BROSED-EN**

**A K T U A Z I O A**

**ETXANIZ**

**Erakustokia:**

Juan Arana 1 • Tfnoa eta Faxe: 943-611767

**Biltegia:**

Juan Arana 3 • IRUN

**URTARRILEKO  
MERKEALDIK**

**MOBLE  
ISPILU eta  
BAINURAKO  
OSAGARRIETAN**

**DUTXA eta  
BAINURAKO  
MANPARETAN  
SEKULAKO  
AUKERA**

**Paratzea prezioan  
sartua dago**

